

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aulesti



Aurkibidea

Udalerria: Aulesti

Sarrera



Lea-Artibai eskualdeko udalerria (Bizkaia), XX. gizaldi hasieran 1000 biztanletik gora izan zituen arren, azkenaldian 650-700 biztanle inguru ditu. 1940-1960 bitartean herriko seme-alaba asko beste herri batzuetara joan ziren lanera (Eibar ingurura bereziki) eta baita Ameriketara ere, artzain lanetan aritzera. Zazpi auzo ditu: Malats, Zubero, Narea, Ibarrola, Urriola, Narea eta Goierri. Azken hori da izaera bereziena daukana, herritik aparte samar dagoelako, eskola izan duelako eta Amorotoko eta Markinako baserri batzuekin ere hartu-eman estua izan duelako.

Argazkia: Etxaburu

- **Biztanleak:** 650
- **Euskaldunak:** %95,5

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **26**
- Zintak: **49**
- Pasarteak: **247**
- Transkribatutakoak: **32**
- Audioak: **9**
- Bideoak: **230**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- IRLAren Bizkaiera Bilduma
- Josu Arrizabalaga Basterretxearen fondoa
- Lea Ibarreko Ahotsak
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera

Hizlariak

Susana Anitua Zenarruzabeitia (1925)



1925. urteko abuztuan jaio zen Ibarrola auzoko Garatxa baserrian. 8 neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Aita bertakoa zuen, ama, oster, Munitibarreko Askarreta baserrikoa. Udaletxeko eskolan ikasi zuen brodatzen eta puntua egiten Rosario "maistra baltza"rekin. Eskolan erdaraz egin arren, dotrinan euskaraz egiten zuen. 13 urterekin neskame joan zan San Migelera, Elgoibarrera, baina lo bakarra eginda bueltatu zen etxera. 21 urterekin Narea auzora ezkondu zen. 100 urte betetzear zela egin zitzaion elkarriketa, herriko emakumezko zaharrena zela. Bere umezaroko eta gaztaroko kontuak, baserriko bizimodua, erromeriak, ipuinak edo kondairak zein Gerra Zibila ekarri zituen gogora egindako elkarriketan.

Juan Ansotegi Uriarte (1962)



Lehenengo Gizaburuagako eskolan ibili zen eta gero Bekobentan. [Julen Ansotegi](#)tekin batera egin zitzaion elkarriketa.



Julen Ansotegi Uskola (1996)

Aulestiko eskolan egin zuen LH eta Bekobentan DBH. [Juan Ansotegi](#)rekin batera agertzen da elkarriketa honetan.

Elena Arriaga Jaio (1958)

Ziortza-Bolibarren jaioa. Gaur egun ere han bizi da, nahiz eta Aulestin bizi izan zen garai batean. Aulestiko gurasoa izan zen Bekobentan DBH ezarri zenean.

Juanita Azpiazu Larrinaga (1926-2017)



1926. urtean jaio zen Urriola kofradiako Etxebarri baserrian. Gurasoak ere aulestiarrek zituen; 5 neba-arrebatatik laugarreba izan zen. Bere aita eta neba Australian egon ziren luzaroan kanabera-azukreekin lanean. Juanita 14 urterekin hasi zen neskame lanetan eta Markinako eta Donostiako etxe banatan egon zen. Herri bereko Alegria Artekoa baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordudanik.

Jose Bollar Gabiola (1931)



1931. urteko zezeilaren 6an jaio zen Urriola kofradiko Astetxena baserrian. Aita bertakoa zuen, ama Amorotoko Belakolakoa. 8 neba-arreba ziren, bera azken erditzean jaiotako hirukietako bat da: Jesus, Maria eta Jose. Umetan gaur egun udaletxea dagoen eskolan ibili zen Zugastietako Emiliano Zugazaga maisuagaz; geroro partikular Lucas Zaldunbidegaz. Gaztetatik baserrian, basoan zein ikaztokian beharrean ibilitakoa da. 1954. urtean Bilbora joan zen, 2 anairekin tindategi bat zabaldu zuten bertan. 40 urteren ostean jaioterrira bueltatu ziren emaztea eta biak. 95 urterekin egin zitzaion elkarrizketa, herriko gizonezko zaharrena zela.

Alizia Eizagirre Atxurra (1965)

Lehenengo Aulestiko eskolan ibili zen, eta gero Bekobentan ikasi zuen. Bekobentan DBH ezarri zenean, gurasoa zen.

Jose Martin Elexpuru Larrinaga (1939)



Lekoiz baserrikoa, guraso biak aulestiarrak zituen. 12 senidetan laugarrena, oso gutxi joan zen eskolara (ordubeteko bidea zuen eta lan asko baserrian). 13 urterekin morroi joan zen Ispasterreko baserri batera. Harrobi batean egin zuen lan ondoren, 21 urterekin soldadu joan zen arte. Txirrindulari ona zen eta sari batzuk ere irabazi zituen. 1964an Ameriketara (Idaho) joan zen, artzain, lehenengo Homedalera eta gero Grand View-ra. Gero eraikuntzan ibili zen lanean, Mountain Homen, aireportuko etxeak egiten. 1974ean Goodingera joan zen bizitzera; kamioia erosi zuen eta belarra garraiatzeko enpresa bat sortu zuen, Jose Antonio Luzarrekin batera (10 urtera bere zatia saldu zion Jose Antoniori). 1983an ezkondu egin zen eta alaba bat izan zuten (aurretik beste alaba bat zuen). Emazteak eta biek behitegia izan zuten eta etxeak eraikitzeke enpresa bat ere bai. Goodgineko euskal etxeko kide aktiboa izan da.

Bittori Etxabe Aspiazu (1926-2016)



Aulestiko Goierri auzoko Iturritzebeko baserrian jaio zen 1926. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama Munitibarkoa. Senarra auzo bereko Goikoetxebarri baserrikoa zuen eta baserri horretan bizi izan da ezkonduz gero. Goierri auzoko historia ondo ezagutzen du: eskola nola jaso zen, bidea nola egin zuten, jaiak eta abar. Hasiera batean bere jaiotetxean hartzen zituzten eskolak, bere ama baitzen maistra. Bizi guztian baserriko lanak egin izan ditu: umetan artzain, gerora Ondarroara eta Markinara salmentara, eta beti soroko lanetan.

Maria Dolores Etxebarria Aranburu (1937)



Dolores Salutregi da ezkontza-izena. Aulestin jaioa, ama bertakoa zuen eta aita Xemeingoa (Markina-Xemein). Denda zuten eta gainean bizi ziren. Hiru senidetan gazteena zen Dolores. Aulestin ibili zen eskolan, eta amari laguntzen zion dendan. 15 urte zituenean, familia Ameriketara joan zen, 1952an. Parma (Idaho) herrian bizi izan ziren. Aita ardi-lanetan ibili zen lehenengo eta gero azukre lantegi batean. Oinarrizko ikasketak egin ostean, Dolores Boisera joan zen institutura eta bertan hasi zen lanean, Estatuarentzat, bulegari. Ricardo Salutregi (Boisen jaioa baina euskal jatorrikoa) ezagutu zuen bertan, bere senarra izango zena. Ezkondu eta bi alaba izan zituzten. 1980ean itzultzaile hasi zen lanean, bereziki mexikarrekin. Boiseko euskal etxeko kide aktiboak izan dira senarra eta biak.

Jose Goitiandia Uriarte Joe (1942)



Aulestikoa, guraso biak bertakoak zituen. Pagodiaga baserrian bizi ziren. Bi anaiatan zaharrena, 13 urterarte Aulestiko eskolan ibili zen; ondoren pinuak botatzen eta zerrategi batean. 9 urte zituela bere aita Ameriketara joan zen artzain, Shoshonera. Jose 1961ean joan zen, Sun Valleyra (Idaho). Sun Valley Inn hotelean egin zuen lana hainbat hilabetez, platerak garbitzen lehenengo eta mahaia zerbitzen gero. Beste lan batzuetan aritu ostean, hotelera bueltatu zen, baina kamioiarekin eski estazioetara jatekoa partitzen aritu zen orduan. 1964rako familia guztia Ameriketara zegoen, baita anaia eta ama ere. 1966an Wood River Rubbish zabor-bilketa negozioa erosi zuen. Izotz negozioa ere izan zuen 41 urtean. Euskal jatorriko emakume amerikar batekin ezkondu zen (Chery Onaida) eta bi alaba eta semea izan zituzten.

Joana Ikazuriaga Arriaga (1948)

Aulestiko eskolan egin zuen LH eta Bekobentan DBH.

Justina Kareaga Gojenola (1928-2015)

1928ko azaroaren 26an jaio zen Ibarrola auzoko Kareaga baserrian. Aita Kareaga bertakoa zuen, ama Amorotoko Goixo baserrikoa. 7 neba-arrebatatik seigarrena da. Eskolara sei urtetatik bederatzira arte, eta hamaika urtetatik hamahirura arte joan zen. Bederatzi urtegaz Aginagako Arando Guenengoa baserrira joan zen neskame, umezain beharrak egiten batik bat, urte bi eta erdiz egon zen bertan. Hamahiru urtegaz Etxebarrira joan zen berriro ere neskame lanetan, hamasei urtera arte. Hamasei urtegaz klase partikularretara joan zen Aulestin bertan. Beazkoa etxeko semeagaz ezkondu eta ordudanik Kareaga baserrian bizi izan da. Baserriko beharrak egiteaz gain galtzak eta galtzerdiak egiten eta saltzen ere aritu izan da.



Libe Kareaga Perea (1999)

Aulestiko eskolan ikasi zuen eta gero Bekobentan egin zuen DBH.



Maite Legarra Eizagirre (1990)

Lehenbizi Aulestiko eskolan ibili zen, eta DBH egin zuen Bekobentan.

Jose Antonio Luzar Landeta *Maasti* (1943)



Guraso biak Aulestikoak zituen. Maasti baserrikoa, hiru anaiaitan erdikoa. 9 urte zituenean baserritik herrira joan ziren bizitzera, aita Ameriketara artzain joan ostean. Aulestin ibili zen eskolan eta Markina-Xemeinen gero, ajustadore ikasten. 1962an Jose Antonio ere Idahora joan zen, Grand View herrira eta Simplot konpainiarentzat aritu zen lanean: txerriak zaintzen lehenengo eta arrantxoko lanetan gero (hesiak ipini, kamioiarekin garraioan, erregadio-sistema ipintzen...), lau urte eta erdi guztira. Hell 's Canyoneko presa egiten ere ibili zen, peoi, urtebete. 1967an amerikano egin zen. 1968an AEBetako armadak Vietnamgo gerrara eraman zuen eta zauritu egin zuten bertan. Gerratik bueltan kamioilaria izan zen, lehenengo Meridiameko garraio-enpresa batentzat eta ondoren bere kontura: Joe and Martin garraio-negozioa ipini zuen, Martin Elexpurrekin batera, Goodingen. 1975ean Carla Dickerson amerikarrarekin ezkondu zen; hiru alaba izan zituzten elkarrekin. Goodingeko euskal etxean oso aktiboa izan da.

Francisca Odiaga Garetxana (1926-2023)



1926ko ekainaren 2an jaio zen, Aulestiko San Anton auzoko Bizko (Beazkoa) baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Nabarnizkoa. Bederatzi neba-arreben artean bera da zaharrena, ama azken umea izan eta hiru egunetara hil zenez bera egin behar izan zen neba-arreba gazteenen kargu. Aitarekin eta amamarekin bizi ziren. Gizaburuagako eskolan ibili zen, Aulestikoa baino hurbilago zegoelako (San Anton auzoko baserri batzuk Gizaburuaga dira). Aulestiko Solaguren auzoko Bizko (Beazkoa) baserrira ezkondu zen eta ordudanik bertan bizi da. Baserriko lanetan aritu izan da beti.

Maria Onaindia Espilla

Aulestiko Torrekoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Maria Angeles Reizabal (1927)

Bilbon jaioa eta beti Aulestin bizi izandakoa. Munitibarko irakaslea.

Miren Urkaregi Kareaga (1933)



Solaguren auzoko Kalebarrenetxebarri baserrian jaio zen 1933an. 11 neba-arreba ziren. Umetan herrian ibili zen eskolan, baina ez zuen denbora asko egin 10 urterekin Gernika inguruko baserri batera neskame joan zen eta. 6 urte bertan egin ostean itzuli zen etxera. Josten ikasten ibili zen denbora batez, baina gero Eibarrera joan zen neskame sendagile baten etxera eta han beste 3 urte egin zituen.

Cresen Urkidi Astorkia (1930)



Zubero auzoko Zuberoetxebarri baserrian jaio zen 1930ean. Hamar anai-arreba ziren. Umetan herriko eskolan ibili zen zazpi urterekin hasi eta 14ra arte. Ezkondu eta lehen umea izan ostean, bost urte pasa zituen Venezuelan, senarrak han negozio bat zuelako. Handik etorri eta beste bi ume izan zituzten.

Tomasa Urkidi Maruri (1890)

Alejandra Zaldunbide Mallabia (1910-2013)



1910ean jaio zen Aulestiko Angizerrotan. Bere gurasoak ere aulestiarrak ziren, errotariak eta okinak. Hamar neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Gerra aurretik joan zen Bilbora bizitzera, bere ahizpa nagusiak Somera kalean taberna bat zabaldu zuen-eta. Negurin ere neskame ibilitakoa da. Gerrak irten zuenean, Bilbotik Aulestiraino oinez etorri ziren. Bere amak inguruko herrietarako autobus-zerbitzua jarri zuen martxan. Zorrotzako Alejandro Zuluetaekin ezkondu zen, eta 98 urtera arte Bilbon bizi izan zen, bere familiarengana Arrasatera joan arte. Errota munduko eta bizimodu horretako zirrikitu guztiak oso ondo ezagutzen eta gogoratzen zituen. Bere biloba Ekaitz Zulueta ere parte hartu zuen elkarriketan.

Juanita Zaldunbide Urkidi *Kaiser* (1924-2020)



1924an jaio zen Malats auzoko Artitx Bekoan. Gurasoak ere malatstarrak zituen. Bere aitarengandik jaso du *Kaiser* ezizena. Sei neba-arrebatatik gazteena da Juanita. Umetan herriko eskolan ibili zen, baina baserriko beharrak zirela-eta, ez zen askorik joan eskolara. Ondarroako plazara askotan joaten ziren baserriko generoa saltzera. 13 urte gaz herriko beste baserri batera joan zen neskame lanetan. Aulesti bertako Katxiñenekora ezkondu zen, eta senarrarekin batera urte luzez harategia izan zuen; beraiek izan zuten herriko lehenengo hozkailua. Harakin lanetan, tratulari ere aritzen ziren inguruko baserritarrek.

Luis Zenarruzabeitia Bengoetxea (1931)



1931ko urriaren hogeita hamarrean jaio sen Aulestiko Ibarrola Auzoko Iburlandi baserrian. Udaletxe gainean zegoen eskolara joan zen 14 urtera arte, eta gero Lukasen klase partikularretara ere joan zen 15 urte gaz. 17 urte gaz sei hilabetez Zallara joan zen Aurelio Garai pernil fabrikara harakin lana ikasten. Bere aita urte askoan izan zuen udaletxe azpiko arkupeetako harategia. Hogeita bi hilabetez soldadutzan Iruñean egon ostean Eibarreko hiltzaira joan zen ganadu-hiltzaile lanetan aritzeko. 1957an Idahora joan zen artzain lanetan 1970eko urrira arte. 1971 hasieran Uriartetarren harategia hartu eta 32 urtez Aulestiko harakina izan da, bere emaztea jubilatu arte.

Hermenegildo Zuazo Kareaga (1910-2016)



1910. urtean jaio zen Beheko kalean zegoen Iturrioz baserrian, "Kaparrena" izenez ezaguna (gaur egun desagertua). Ama bertakoa zuen eta aita Gerrikaitzekoa. Bere familia eraikuntza lanetan ibilitakoa zen: aita kontratista, osaba arkitekto ezaguna (Secundino Zuazo) eta Herme bera arotza. 4 urterekin elizako abesbatzean hasi zen eta bertan ibili zen 17 urtera arte. 15 urterekin joan zen Aulestetik Bilbora eta Erriberako merkatua izan zen bere lehenengo lantokia. 1934. urtean Irala kalean jarri zuen tailerra, baina gerran errexisatu egin zioten. Gerra sasoiaren, gudari talde bateko buru izan zen eta burdinazko gerrikoaren inguruan babeslekuak egiten ibili ziren; Elgetan ere komandantziako buru izan zen. Laredon eta Miranda de Ebroko kartzelan egon zen, eta, gero, Canfran (Huesca) inguruko Col de Ladroneko karabineroen kuartelean sukaldari eta "Batallón 23 de gudarís" langile-batailoian. Gerora, Somera kalean galtzak egiten eta saltzen ibili zen. 100 urtera heltzeko sekretua inguruan dauden lagunengan dagoela dio, ondo lagunduta eta ondo zainduta egotea.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Zubero auzoan jaioa

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Zubero auzoko Zuberoetxebarri baserrian jaio zen 1930eko otsailaren 14an. Zubero auzoko baserri izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Hasteko izena, zure izena da?
- Cresen Urkidi Astorkia.
-Eta esan dozu jaixo ziñala, Zuberon, Zubero auzuan?
-Zuberon bai.
-Ta ze etxetan?
-Zuberoetxebarri.
- Zuberoetxebarri dake izena baserrixak?
-Bai Etxebarri da bai.
-Eta ze urtetan jaixotakua zara?
-Treintan.
-Ze egunetan?
-“Febrero, catorce, día de San Valentin”.
-Eta han Zubero auzuan basarri asko dare edo...?
-Bai bueno ba zenbat egongo dire ba beittu, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaike bat-edo. Bakizu jausi be ein zan etxi be, hamaike baserri bai behintzet, bai.
-Orduan desagertutako basarrixek be badare hor, ya jausi diranak.
-Ba ya desaparezidute da. Bizitza bikuk dire asko,ze Maixenekuk be bik dekoz, bi kontau leikez, Goittandikuk be bi, lau, Legarrekuk bat, bost, Uxartekuk beste bi ,zazpi, Itzekuk be beste bi, bederatzi, gure etxi be bizitza biku zan baiña bat bizi giñen hamaike. Hamaike pentsete´ot dagozala e, zuzen ez dot esango iguel dana dala.

1.2. Bilbora saltzera

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/021
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

- **Laburpena:** Bere aita baserrian eta basoan lan egindakoa zen. Egiten zituen beharrak azaltzen du. Lehen baso gutxiago eta solo gehiago zegoen. Diru apur bat ateratzen zuten, azukrea, olio eta erosteko, ortuariak eta saltzen. Fruta arbolak asko zituzten. Behin 20.000 kilo saldu zituztela azaltzen du. Bilbora joaten ziren San Antongo plazara, Juanita Angizen kamioian.

Transkripzioa

-Ta aitzak bestela ze bihar eitxen zeban lan, etxian? Basarrixan eitxen zeban bihar edo aparte nunbaitxen be ibili zan?

-Ez, ordun ez euen aparte zerik e!

-Basarritxik?

-Baserridxe.

-Baiña igual basuan-edo?

-Basun bai. Basuk eta piñuk sartu ta basun ta gero idi ekarri ta han azpidxek eta eitteko idie. Ta bedar zikuk eta baserridxen biher asko. Lehen solo asko egoten zan: artu ta garidxe ta nabu ta.

-Bai, hainbeste baso ez zan egon be eingo, ez? Hainbeste piñu ez zan egongo.

-Hori, baso gitxia ta solo gehidxa. Jateko beste lekuri ez euen. Bueno, ba gero inddiarra ta sartzan zendun ta haren diruegaz azukri ta oridxu erosi biher eben /biben/. Fruterik be ez zan egon be eitten dendatan be, baiña etxin eoten zan: keixi ta melokoto ta jenero asko egoten zan e! Ta sagarrak urte birik baten egoten zirin.

-Orduan fruta-arbolak eta be eukitxen zenduezan etxian?

-Asko. Baten be gurin arbolak-ta pillo bat eongo zirin, sagar batzen-ta asko eitten gendun ta ganbaratik saldu zin hoge millo kilo. Ganbaratik etxerako apartaute e! Bai, urte batzutan asko. Arbolak ba handixek gero.

-Ta nora saltzen zenduezen?

-Bueno, ordun kontratistik. Ostantzin Bilbora jutun giñen.

-Autobusian.

-Bai, ointxe kanbidxau biher daben /bidaben/ hona plazara. Hau merkauau ointxe barriztetan dabiz ba! San Antongo plazara. Kamioie honek, Juanita Angizek euen ta hantxe kamioien otzaratan ipiñi beteta, zakugaz tapau ta sei edo zortzi otzara. Gero han maleteruk egoten zin otzarak ipintteko ta harek eruten euskuen. Ama jutun zan antxiñe, gero neu be jutun nintzen ta.

-Bilbora?

-Bilbon. Ta gero bilbotarrak apurtxu bet karu ikusten baeen, berez haziniko gauzi dala ta ha kobreti ez eben nahi izeten. Ta berez pentsau, lehenengo batu, harek ipini, harek erun ta dana berez eindde dauelakun.

-Klaro, harek ez eben ikusten zuek eitxen zenduen bihar guztia.

-Exakto, bai.

-Ta frutia saltzen zenduen edo bestela arrautzak eta holan be bai?

-Bueno, jente askok bai, guk ez gendun saltzen. Bueno, amak bai e! Gure ama Gernikera be, iñoz Durungora be jun zan oiñez, astugaz. Harek dana, arrautzak be saltzen zittun. Ba etxin noizipehin jaten zan arrautzie ze diru ekarri biher zan /bizan/ oridxu ta azukri-ta erosteko. Ta gero gurin diru asko be ez zan eongo, baiña euen aitte kartzelara erun ebenin dana enkatau ein euskuen. Euen diru be ezin atara.

1.3. Gaztetako jatekoak: ortuariak

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/023
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Oilaskoa jaietan jaten zuten, San Lontzotan. Arrautza ere noizean behin jaten zuten. Txahala eta txerria hiltzerakoan janari lortzen zuten. Bestela baba, indabak, lekak, porru-patatak... jaten zituzten. Letxuga azukrearekin eta ozpinarekin jaten zutela ere kontatzen du, eta saltsa hura bustitzea asko gustatzen zitzaien. Tomatea ez zuten gordinik jaten.

Transkripzioa

-Hori, etxian jan bihar ba beti artue ta esnie ta holakoak eta oillaskorik eta be igual ez zan jango.

-Oillasku bai, jaidxetan.

-Jaixetan?

-Bai, san Lontzotan. Bueno, luju zan ta arrautzi be noizipein. Oin zeziñe eitten zan e! Txahala hiltten zan ta gatzuneskan ipiñi ta ha egosi ta zera bai. Ta lehenengo ganera odolestak-eta txorizuk-eta. Txarridxe be hiltten zan. Bai.

-Bestela zer jaten zenduen, babak? Babak-edo?

-Babi, inddarrak. Babie, hori esaten eban amak. Babie-ta batzutan inddarrari sartzen eutsen babi ta guk umik jan ez. Ta gero eitten eban, berari asko gustetan dxakon ta aparte ein babie ze umik jati nahi izeten eban ta babi sartzen baotsen gustau ez guri. Ta inddarra, porro-patie, baiñak be bai.

-Berdurak, orduan?

-Bai. Azalgarik, ortuaridxe, azalgarik eta ez dakit eukitten bagendun. Porru ta holaku bai. Ta gero tomati ta piperra ta horrek bai.

-Ta tomatia jaten zenduen, gordiñik?

-Gordiñik bai. Gordiñik ez dakit ba tomati jaten gendun, baiña letxugie azukri ta biñegriaz ta guk eitten gendun haxe saltsatxu busti. Ze azukri, bakizu, gozue. Ta biñegri pentsetan dot botaten dxakola ba-ta. Nire nebi Ameriketatik etorri zanin esan eban: "baiña ensaladi gatzagaz ein biher da /bida/". Ta orduntxe gatza ta oridxu ta zeragaz eitti ta tomatie. Tomatie koziñaute, kipuligaz koziñaute.

-Bai, gehixa gehixau eingo zan koziñauta.

-Bai. Nik ez dot pentsetan gordiñik, ez dot pentsetan jaten gendunik e!

-Bai, ta letxugia be ez dakit ba pentsauko zan igual zatarra zala-edo, azukria botatzeko, ez?

-Exakto. Ta ha letxugie ba bueno, gu geuk behintzet orri asko ez gendun jaten. Ha saltsatxu bai, busti ogidxegaz ta. Bai, ba halantxik dalakun. Ta gero ensaladie. Gatzagaz ta zerin, bai.

1.4. Ur-sagardaua

- **Hizlaria(k):** Kareaga Gojenola, Justina

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AUL-008/053
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:10:40. **Bukatu**: 01:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena**: Sagardorik ez zuten egiten, baina bai ur-sagardoa; zelan egiten zuten azaltzen du. Zapora mingotsa zuen.

Transkripzioa

- Eta sagardurik eitten zenduen?
- Ez, etxin ez. Ur-sagardue esaten eutsen ta zozar bai, noz edo noz akordetan naz euki genduzen zerak be, zelan esaten jako horrerri?, barrillek-edo.
- Kupelak eta dolarak.
- Dolararik-eta ez baiña nik ez dakitz zelan apurtzen zittuen sagarrok eta eitten eben ur-sagardue. baia ha edan zein... bueno!
- Eta zelan eitten ben ur-sagardue?
- Jo, jo, jo einde batsak, batsa gelditzen da apurtututekun dana, batsa gelditzen da azala ta zera, zein de por ejemplo egosten dozuz, ze esango dotsut /esangotsut/ ba? sagarra ba membrillu eitteko nahi mermeladie nahi. Ba ondo pasadorien pasaute eta izen biher izeten /bizeten/ da, ta ba han batsa gelditzen da hondokiñe. Ba ha sagardue, haretzek danak kendu ta garbittu-ta eitten eben.
- Ta gero botillatara edo pitxerratarara-edo...
- Gero sartu barrikan ta bere txorkotxue sartu bere zulotxuegaz eta txorkue atara ta "txirrr" iturridxen betetan eban bazkaltzeko sasoen sagardauri. Hori akordetan dxat. Honakoxe zulotxu bat euken barrikik ta han sartu txorkotxue ta ha atara ta handik edan.
- Eta, gozoa zan?
- Bai, nehiku! mingostxu-te, ure baiño apetitotxuaue baiña arda ederra hobia.
- Edateko modukoa.
- Bai, karo, bai.

2. Familia eta harremanak

2.1. Gerra garaian, aita kartzelan

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Auzoan, ume asko ziren. 10 neba-arreba ziren eta neba bat gerra aurretik Ameriketara joan zen, beste bi gerrara eta aita beste batekin kanpora joan zen hura harrapatu ez zezaten. Ama bost umegaz geratu zen, berak bost urte zituela. Aita eta beste neba etxera bueltatu ziren eta guardia zibilek aita atxilotu eta kartzelara eramane zuten.

Transkripzioa

-Auzuan ume asko juntauko ziñazien ez?

-Bai umiek olgetan-ta bueno asko, bai. "Treinta y seis" in gerri has izan aprillin ta nire neba bat, hamar neba-arreba izen giñen gu, ta neba bat Ameriketara jun zan gerri baiño aurreratxuau beste neba bi gerrara, gero beste bat hamazazpi urte eukezan ta aitte jun zan beragaz kanpora erun ez daizen ba, ta gero etorri ta ha ez zebeñ erun. Baiña gero olgetan etartin gu umik ba, gure ama zerin geldittu zan bost umegaz, guk sei urte, bestik zortzi, bestik hamar, ta bestik hamabost. Ta etartin olgetan gaezala, Goardia Zobillek etor zirin ta "¿Juan Tomas Urkidi?" eta "presente" esan ban gure aittek. Ta bai, "¡Venga con nosotros!", ta "¿yo? Tengo que quitar las albarcas" esa ótsen, "no, con albarcas y todo". Ta erun ben kartzelara, ta kartzelan zemat denporan ein ban umi be banitzen ta ez dakit ba urte bi-edo, ez dakitt e. Ta nire ama ume pilluaz han geldittu zan, bai.

2.2. Zinea

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/012
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Herriko abade batek pelikulak jartzen zituen eliza ondoan, berak 26 urte-edo zituela. Gero bizikletan joaten ziren inguruko herrietako zinema aretoetara.

Transkripzioa

- Baten Charloten pelikuli emon euskuen hantxe arkupin. Politte e! Bai, hamabi bat urte-edo euko nittun ta bueno, total gustaute.

- Klaro, hemen zinerik eta ez zan egongo?

- Ez, gero, bueno ya nausidxaue nitzen ni, hogeta sei urte be bai ta herriko abade batek han elidxin ondoko zerin pelikula polittek emoten euskuzen e! Baiña juten giñen gero zinera bizikletan igul. Lekittora be bai, ta Bilbora nebiegaz-ta.

2.3. Umetako olgetak

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jokoak aipatzen ditu: tresna biozka, potoka, txorromorroka, kartaka, aponga, intxaurrak zuloan sartzen, katxorratara, kubike... Behin maistrak zigortu egiten zuten

txorromorroka aritzearren, antza mutilen jolasa zelako. Aipatutako jolas batzuk zelan ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta lehen esan dozu umetan jolasian ta, pote-poteka edo, “tres navios” ta.
- Hombre, “tres navios” ta pañelu bota ta, ahaztu be eindde daukedaz.
Txorromorroka be eitten gendun, baiña maistrik kastigau ein gaittun baten be txorromorroka topau gaittula. Ta beste baten kartakin jokun ta belauniko eskuk zabalik. Txorromorroka be mutillen juegue dala esan euskun. Bai.
Kastigaute eskuk zabalik belauniko egon biher izen gendun e! Bai.
- Orduan neskak eta mutillak jolas desberdiñak eitxen zenduezen?
- Bai. Harek behintzet kastgau ein gaittun. Txorromorroka ez dala neskan zera ta. Bai, baiña. Aponga be bai, bueno zenbat juego. Apon bat eta nire aitzik esaten eusten amesetan be haixe eitten dotela. Aponga. Hainbeste juego irabazten nittun e! Bota kañeki ta. Bai, “zulo”, “lepo”, “culito” ta “Carnito”. Buelta emon ta gero zera. Gero intxaurrekin zera, zulun sartzen be bai.
-Bai, kanikekin moduan intxaurrekin.
-Bai, zulue ein ta hantxe sartu ta beste bat honako illadie ipini ta katxorra edo esaten dxakon han txikidxe. Ha txikidxe bota ezkerro dan danak zeutzako. Bai, juego asko.
-Katxorra ze zan?
-Katxorra izeten zan intxaur txikitxu bat ta bestik illadi igul dozena bat ta han bat euen leku, ha botaten bazendun, intxaur guztidxe zeutzako. Oin hamen illaran dauena bat ataraten bazendun, bat. Baiña ha atara ezkerro dan-danak zeutzako.
-Katxorra atara ezkerro.
-Juego asko. Bai, ahaztu be eindde deukedaz baiña.
-Eta hori, han Zuberon auzuan edo hemen herrixan jolasten ziñazien.
-Hamen errekreun, Zubero auzun be bai, han nausidxe guri begire egoten zirin. Han be zera kubike barretz lantzin leku baten sabaidxetan ezkutaute. Oingo aldin olgeta asko eitten gendun. Besterik be ez geunken e!

2.4. Umetatik baserriko beharretan

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/019
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ganaduarekin egin beharreko lanak azaltzen ditu.
Umetatik egin behar izaten zuten lan. Emakumezkoek denetarikoko beharrak egiten zituzten, etxe barruan zein kanpoan.

Transkripzioa

- Ta ganau asko ta eukitxen zenduen etxian?
- Bai. Gurin eoten zirin hamabi edo. Bai, gero ittaurren ein biher izeten zan. Ez dakizu zer dan ittaurre han bueno, atzetik gora ta behera, harek zaintzen. Astugaz bedarra ekarri ta astue igul bueltau eitten dxakon kargieta, bai.

- Ta ume-umetatik in bihar lan horrek, ezta?

- Bai, bueno, sei urtegaz ba igul egurrek etartetik ezkatzera erun-ta. Bai, morokille be igul ein biher izeten gendun ama daneri ezin allegau-ta. Nausixek danak jun zin. bata gerrara bestie kartzelara-ta.

- Klaro ta bestela andrak eingo zebe etxian etxeko gauzak eta gizonak gahixau kanpuan edo zelan izeten zan, andrak danera?

- Bueno! Gure amak bueno, bihergin handidxe zan e! Bueno, nire aitte lako. Aittek bai, zeri handiku baiña ama bizkorra, esku bizkorreku. Etxin be erropak be josiko zittun umintzako, kaltzak be eingo zittun, kanpoko bihera be eitten eban, kortara be berak jun gure izeten eban ze aittek esne gitxi ekarten eban, txahalari emon ta harek ba umiri emoteko, ume kuadrilli gu ta bera gero kortara be ta danera e! Ta kanpora be bai, etxeko zerak eindde, kanpora be bai.

- Andrak danera. Etxian, kanpuan ta danera.

- Bai, dana bai. Hori esaten eban nire aittek ba ama ariña hil zan ta: "ai... ha Joxepa bazunan ba! Harek baiño garixe ariña ebaten ebanik eta harek preparau ta". Unadatan ba, zera ta "nundik nora hona bera". Larogeta zortzi urteaz hil zan aitte ta nundik nora ta ba "zerun dekezu ha itxaitten ba"- ta. "No! Haretxen faltatxu baxeukenat ba"-esaten eban.

2.5. Ama bi bider ezkontutakoa

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/020
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:25:54. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Bere ama gogoratzen du, oso langilea izan zela dio, hamar ume izateaz gain etxea ere aurrera atera behar izan zuen. Bere ama 22 urtegaz alargundu zen eta ume bi hil zitzaizkion. Bere aitarekin, koinatuarekin, ezkondu zen gero. Izeko "fiebre española" gaz hil zen.

Transkripzioa

-Langilea orduan.

-Bai, abille zan e! Baiña asko tokau dxakon koittadueri.

-Ta gero hori, hamar ume hazi bihar eta.

-Hamar ume hazi. Lehenengo bikidxe, beittu ganera lehenengo ezkondu ta, han Zorua Goixerri urrin da ezta? Hangu zan bera. Ta soldau jun zan beran gizona ta bularretik gaidxue atrapau eban. Ta amak euki zittun bikidxe, nik ez nittun ezautu ta gizona bularretik hil dxakon ta seme-alabak be bai. Asike, hogeta bi urtegaz alargundute ta ume bi hil dxakozan.

-A bai, e?

-Gero ostabe gerrie, harek bueno, ze pasau eban.

-Oseake orduan berriz ezkondu zan gero? Zure aitxakin.

-Gero, nire aittegaz, anaixie. Anaixie ta harek hiru anaixe. Arrebi be euki eben, baiña hau "fiebre española" edo zein zan? "La gripe española" edo.

-Gripia bai, gripe bat egon zan, hor.

-Orduntxe hil zan haren arrebie ta beste anaidxe bat, nire aitte baiño

gaztiaue ta nire ama dotori egongo zan ta haren atzetik eta nire aittek, zera, nire aittittek nahi eban nire aitte amagaz ta nire ama alargundu zanin nahi eban beran jaidxotetxera jun ta “zu ez, zu hamengotxi zara” ta hantxe geldittu zan ta gero nire aitte orduntxe hasi fjetan, pentsau bez koiñetigaz ba ta haregaz ezkondu ta hamar ume euki zittun haregaz, hamar neba-arreba.

-Orduan zure ama Goierritxik etorri zan Zuberora.

-Zuberora, bai.

-Ta gero hor ezkondu zan berriz.

-Hortxe bai. Ta gero alargundu ta umerik barik geldittu zanin ba amagana jun gure izen eban ta aittittek ezetz, “zu hamentxe biher zaittugu ta”.

-Ikusiko zebeñ fiña zala ta, ez? Etxerako nahi.

-Bai. Ta gero nire tio ba han zerin ta ba, ta aittek ha baiño nire aitte nahi eban etxerako edo behintzet halan “ostu bi aukera Joxpa” joe, bueno, Ana Josefa zan baiña Joxpa esaten dxakon nire amari ta halantxik nire aitte. Ostantzin bakizu, gaztie izen be ta olgetan ta pentsau bez.

2.6. Moja joateko dotea

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/022
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:32:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Bere ahizpa promesa bat zela eta joan zen moja. Moja sartzeko dotea ordaindu behar zen, eta koinatuari eskatu zion dirua, amak plazan lortutako dirua olia, azukrea-eta erosteko erabiltzen baitzuten.

Transkripzioa

-Ta nire aitzie moja jun, ein eban /eiban/ promesa bat. Aintxiñe promesak eitten zirin ba. "Aitte kartzelatik urtetan badau, moja jungo naz"-ta halantxik. Eta gero mojatara dotie erun biher zan /bizan/ ta dotie zertzeko dirurik ez etxin ta beran koiñeto, bai koiñetu bateri kendu eutsen. Gero emon eutsen, ezta?

-Bueltau zotsan baiña.

-Bai, ez euen dirurik.

-Bai, orduan moja joateko be [...]

-Dotie, bai. Oin zenbat, horixe ideaik be ez dauket, baiña horixe entzun neutsen amari iñoz, Landaburun eskatu ebala dirue dotie emoteko. Ta berak plazatik bai ekarten eban, baiña azukri ta oridxu be biher zendun / bizendun/.Ta kafi be gitxi, urridxe, baiña. Artu ta esni ta talu ta esni ta. Neuri ez jate gustetan artu, baiña.

3. Politika

3.1. Errazionamendua eta errotak zarratuta. Dotrina euskaraz eta erdaraz

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/003
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Garia entregatu egin behar izaten zuten eta txahala ere bai soldaduek jateko. Errotak zarratu zituzten eta ama Gernika ondoko Ugerkara joaten zen. Abioiekin-eta beldurtu egiten ziren. Eskolara zazpi urtegaz hasi zen, arbel bat eta entziklopedia bat baino ez zuten ikasteko. Dotrina eskolan erdaraz eta elizan euskaraz ikasten zuten.

Transkripzioa

-Ta gero garixek eta entregau ein biher izeten genduzen, hona zerera ta txahala be erun eitten oskuen soldauei jaten emoteko. Ta txahala be gordeta egon zan ide artin. Ta gero errotara. Hamengo errotak zarratu ein zittuen ta Ugerka Gernike ondun da ta gure ama astugaz hara juten zan. Neu billurregaz jausi be eingo nitzen, baiña. Ta gu eskolara zazpi urtegaz hasi giñen ta gero abioiek etozenin-ta billuertute ibiltten giñen. Ta eskolan eduki gendun bakarrik pizarrie, pizarriñegaz. Ta gero enziklopedixe bat bakarrik. Ta handitxik ikesi gendun. Bai, ta ba dotriñie, erdera eskolan ikesten gendun ta elixan euskera.

3.2. Aita bisitatzera kartzelara

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Aita bisitatzera, kartzelara joan zen. Bilboko Larrinagara. Atearen akordua du, bueltak ematen zituela.

Transkripzioa

- Akordetan naz gero aitte kartzelara ikusten jun nitzenin, baten erun nindun Bilbora juti ba, Larrinagan egon zan. Ta honako atie, bueltakue ta nik ezin pasau. "Pasau zaitte umia ba" esaten osten amak eta baiña ama ezin dot. Atzenin be berak urten ta erun nindun. Eske bueltie ensegida etorten dxaten ta bai. Ta kartzeli akordetan naz honako kuadrukin edo zala pentsetan dot. Bai. Ta ba, hantxe.
- Zenbat urte zekazuzen zuk orduan, aitxa kartzelan egon zanian?
- Kartzelan, zazpi urte eitteko. Bai, ta haixe atie akordetan dxate.

Lehenakun Bilbon halakoxe hamen, nire umetako atie han “Baserri” edo dauen lekun. “Hala ba” esan neban. Bai.

3.3. Soldaduak Zubero goian

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/007
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Arropak aipatzen ditu. Euria egin arren, ortozik ere ibiltzen ziren. Ondo pasatzen zuten, nahiz eta gerra sasoia izan. Bere amak asko sufritu zuen. Soldaduak Zubero baino gorago egoten ziren, Miñeko zuloan ezkutatzen ziren aireplanoetatik, bonbardaketa egongo zela-eta.

Transkripzioa

-Ta ba lantzin erropa bat. Gitxi eitten zan e! Abarketakin, euridxe bazan ortozik juten giñen etxera. Oin ez naz kapaz ortozik juteko, baiña.

-Ia. Orduan ahal zan moduan.

-Bai, bueno. Ta olgau ta. Bidetan ikuk harrapa- ta sagarrak-eta. Ondo pasau eitten gendun. Bakizu, gerri ta billurre ta bai, baiña.

-Igual enterau bez umiak ondiokan ta.

-Umik ez dabe zertzen. Oin, nire amak ba sufriduko eban pentsau, hainbeste ume etxin ta. Gauza handirik ez gendun eingo guk.

-Baiña bestela zuek hemen soldaurik eta ikusi zenduen gerra denporan, hemendik pasau zian?

-Bai, ta nik aizte bi gero moja jun zin ta bat kapitana edo nire aitzigaz enamoraute egon zan ta ekarten eban jateko pillo bat ta gure amak harek jan gure ez. Bakizu, zerenak dizela ta. Ogi zuri ederra ta. Artu jaten gendun geuk igul, ogixe be eitten euskun, baiña garixe udaletxera ekarri biher izeten zan soldautzantzako. Ta harek jatekun bai lakterixe ta azukri ta kafi ta. “Honek bota” esaten eban. Ez eban nahi izeten, bai. Soldauek han bai, ganera Zubero baiño goratxua egon zirin ta bonbardiuk eta horrek. Ordun juten giñen, Miñeko zulu da hamentxe hortxe gora junde ta hantxe ezkutetan giñen. Zuberoko guztidxe e!

-Abioiak zetozenian ezkutetan ziñazen.

-Abioiek, bai, abioiek eta bonbardiuk egon biher dala-ta. Ta horraxe Miñeko zulora. Oin, Zuberon ez zan, ezer ez zan pasau.

3.4. Gernikako bonbardaketa

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/008
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernika bonbardatu zutenekoa kontatzen du. Bertatik pasatzen ziren, eta arbolapeetan ezkutatzen ziren.

Transkripzioa

-Ta Gernika bonbardeau zabenian, zuek abioiak eta ikusiko zenduezan pasatzen, ez?

-Bai, bueno. Ha zertu zanin ta. Berton ziher be pasetan zirin ta gu arbolapera jutun giñen abioien billurregaz. Billurre eukitten gendun itzela e!

-Bai, zaratia atarako zebeñ harek eta zer ete dan eta, ez? Pixkat...

-Bai, ta ba, beste zerik ba.

3.5. Ogia ezkutuan egiten

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/024
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Garia udaletxeko arkupeetan entregatu behar izaten zuten. Etxean ere apur bat ezkutatuta izaten zuten, eta bere amak gauez erabiltzen zuen labea, bertatik irteten zen kea soldaduek ikusi ez zezaten. Beraien auzoko batzuekin gertatutako istorio bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Ta lehen esan dozu garixa entregau bihar izaten zenduela.

-Garidxe bai. Garidxe danak hamen arkupi da udaletxin azpidxen, hantxe garidxe. Ta gero etxin ezkutaute eukitten gendun sarriten ze gure ama be gabaz jutun zan, pentsau idxe Gernikera artin astuegaz. Ta zera be, labako suk be keie botaten daben lez, gabaz eitten eban ze soldauek ebizen lez hor zerien, ikusi ezkerok ez geunken ogidxe eitteko permisarik eta. Gabaz ein ze keie botaten dau labik eta.

-Ezkutuan, orduan, ez?

-Dana ezkutun.

-Ta txarrixa hiltzerik eta be ez zan egongo ala?

-Nik ez dakit ordun zelan ez naz akordetan. Deuket goguen, nire auzoko batzuk han berbetan euezan ta umi ba nik be sei-zazpi urte ez nittun euko ta eurek bixek esan eben: "Geuk behintzet goserik ez dekegu" ta harrokeridzan. Ta "Ene! Honek zer pentsau dabe" esan neban "nik gosie deketela?", ebai neban honakoxe ogi taku ta euren aurrera ogidxe jaten. Haxe gogun eukitten dot e! Ez neban nahi guk be gosie geunkela esan deixen.

3.6. Milizianoak aitaren bila

- **Hizlaria(k):** Kareaga Gojenola, Justina

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AUL-008/071
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 01:34:51. **Bukatu**: 01:37:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Milizianoen tropak goitik behera zetozeela gogoratzen du. Bezperan, beraien aita hartu zuten azaltzeko non zegoen Zapola - trintxera lekua-, baina alde egitea lortu zuen; hurrengo egunean berriro etorri zitzaizkion bila. Bere nebak 7 urtean ibili ziren soldadu.

Transkripzioa

- Milizianuena esan dogu. Milizianuk etor zien tropie hor goititik behera "prou-prou-prou". "Ointxe datoz, ointxe datoz, ointxe datoz", ta bakizu bentana zuluetatik begire. Ta gero ba pasau zienien ogidxe atzetik, ensegida ogidxe euren ondorik... Ta ba ogidxe ensegida, ta dirue, diru zuridxe, ta ba horixe deket goguen milizianuena. Ta gero horretako lelengo ebixen bezperan-edo gure aitte erun eben altxaute ogetik erun eben erakusteko Zapola nun euen-ta, Zapola esaten eutsen hor goidxen holako trintxerak-edo esaten eutsen zeretan-edo, ta gure aitte euen erakusten-edo, ta bueltan ekar deue ta hona kruzera, ta gure aittek eurek apur bet albora edo bestera ein ebenin, danga igesi eureri, hamen kruzetik hor kalien, kruzetik, ta igesi aittek. Eta esan ei eutsen amari: "banator etxera, baiña ez dakitz zer ein jotan", ta bixamonin ati jo ta: "¿por qué marchó ayer a la noche?" edo holan erdera, aittek bakizu, "¿por qué anoche marchó usted?" "con miedo hombre" bestiek atzera, gure aittek kontestau ein otsen /eintsen/ ta. Ezebe ez otsen ein, baiña "ta-ta" hil be bardin-bardin harek iges ein otsielako ba. Ta ba holaxik, gerra denpori horixe.

- Ta zuk nebarik-edo ez zendun euki?

- Bai, nebak, zazpi urte be soldadu eñikuk.

- Ta nundik ibil zien?

- Hortik, ez dakitz nundik ibilko zien, Andaluzidxen, nik ez dakitz nundik be.

- Ta orduen luzero euren barri euki barik-edo.

- Bai. Bueno, batek eskoli be ona euen ta eitten eban ta. Bestik be karti eitteko beste bai, ta horrek bai. Baiña bakizu zemat din? mutil parie ta zazpi urtin? itzela die.

- Karo, etxien be faltan.

- Etxien bueno!

- Heridu edo zozer ein zien?

- Ezta, sekulo bez, ezebe, ezebe, ezebe, ezebe, ezebe ez ben ein sekulo.

- Lagunek hilko jakiezan ba.

- Ez dakitz hori, baiña eurek behintzet eurek sekulo bala bat bez, ez, sugertosuek izen zin.

3.7. Aita errepublikazalea

- **Hizlaria(k)**: Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AUL-010/009
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:11:57. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Juanitaren aita eta osaba errepublikazaleak ziren. Auzoan nazionalistak, errepublikazalean eta monarkizaleak zeuden. Beraien aita-eta ez ziren elizara sartzen, ez zuten ezertan sinisten.

Transkripzioa

- Semea: Gero aittitte ez zan izengo ba republikanue? derrigor izen biher!
- Bai, gure aitte, gure aitte eta nire aitten anaidxie errepublikanuk zin.
- Semea: Alejandran aitte.
- Aitte. Ta gure han kofradidxan beste batzuk, oin e PNVkuk esaten dxakena ordun e.
- Semea: nazionalistak.
- Nazionalistak ta frankistak.
- Semea: Frankistak be bai?
- Bueno frankistak barik beste izen bat esaten dxaken ordun, beste izen bat.
- Semea: Monarkikuk izengo zin.
- Monarkikuk hori. Monarkikuk, monarkikuk, nazionalistak eta republikanuk. Ta gure aitte ta tio Jose Miguel errepublikanuk, ta elizarakuk bez, ze elizi ordun ba elizi zan inportantie, ta Bitorio ta ni dxoaten giñen, nire nebi ta ni dxoaten giñen billurtute harek nire beste lagunek eta gure edadekuk-eta, harek aittak eukezan ba nazionalistak errezetan ebenak ta monarkikuk beste batzuk, harek ederuauek-eta, danok pobrik, baiña, harek ederua gu baiño. Ta nire nebi ta ni ba gu ba sufrimentun. Honek gure aittok, harek ez zebeñ siñisten ez inpernuaz ta ez zeruaz, ta horrek bestiok beti errezariduk hamabost misteridukuk-eta errezetan ta gu lotsatute ba, gu ba. Harek anaixak eurek alkar ondo hartzen eben, barre zerak zien, lagunek, anaidxek lagunek.

3.8. Errepublikazale gutxi

- **Hizlaria(k):** Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AUL-010/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Aulestiko hauteskundeetan ia bozka guztiak ziren nazionalistentzat edo monarkizaleentzat, oso errepublikazale gutxi zeuden. Osaba eta aita errepublikazaleak ziren; osabak esandakoa gomutatzen du: "gauza ona urrixa dok". Abadeak bere lehengusu-lehengusinei fama txarra jarri zien. Osaba eta aita sasoi hartarako oso modernoak zirela dio.

Transkripzioa

- Botaziñoiok egon zin ta ba pasau zen botaziñoiok, ta gero papelak eta leiduti bakizu zelan dan, ta danak nazionalisti ta dana monarkikue gehidxa

ta errepublikanu gitxi. Ta nire aittek anaidxieri, Jose Migueleri: "Hi hermano, bakik haxe geuriau gitxi dauena?". Rekuentun errepublikanu gitxi. Ta guk, guk ordun be, nire nebik eta nik: "Beittik beittik ba! ia honek honek-eta, ba!".

- Semea: Bai baia zer esan eutsen gero Kaiserrek Jose Migueleri?

- Ez, Jose Miguelek esan otsan, anaidxik esan otsan nire aitteri: "Hi hermano, gauza ona urrixa dok", asike, gauza ona ba... Holakoxe kontutxuk, triste.

- Ta abadiagaz-eta problemarik ez eben euki? elizara ez joatjarren-eta?

- Ez zezen bueno, ordun apurtxu bat banatzen, zertzen eben, erakusten eben, ez euezan konforme gure aitten eta tio Jose Miguelen eta, haren Jose Miguelen seme-alabak euki zittuan, zemat neba-arreba zittuan? igul hamaike-edo, ta zien bastante balidxokuk, ta jantzi, panaderidxe be baeuken, ta beti zozer gehidxa gure aldin, hobeto jantzi-ta, ta putak eta zirela harek eta esaten zittun eta buf ordun ba. Bai, fama txarra ipiñi, fama txarra, preparetan zilako eta garbidxek, garbi ta preparetan zilako- ta ba...

- Semea: Bai, baia hori dana etorren horrek, tio Jose Miguel ezkondu zanin horra, panaderidxara, karo republikanue, komunistie, "terra roja" bautidxau eben ha jun zan baserriko terrenutara-ta, "terra roja". Ordun be kleruk...

- Kleruk inddar haundixe euen ordun, baiña, bueno kleruk. Ta abadek nire lehengusiñak-eta harek ba ya fama txarra, inpernuku lez, balitzon lez. Ta bihergiñek eta baserritarrak baiño beti altu, ahal be gehidxa, ta bidamodukuk zin, baiña iñok.

- Semea: Baiña aittitteri eta Jose Migueleri horrek ez otsen ardure. Harek modernuk zin orduko sasorako.

- Modernuk. Harek orduen esaten eben ta gu lotsatute: " ai inpernu balego!", ta zerun ta inpernun ez zezen siñisten. Ta gu ordun, beste guztik erreza ta, beste estilo baten bizi, beste zer batekuk zien ta, nire nebik eta nik sufrimentu.

3.9. Beste umeekiko ezberdintasunak

- **Hizlaria(k):** Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AUL-010/016
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Beste umeekiko igartzen zuten ezberdintasuna errepublikazaleak zirelako; besteek etxean arrosarioa errezatzen zuten, elizara joaten ziren... Hala ere, dotrina ikasi zuten, baina gutxi; lehenengo jaunartzea ere egin zuten. Gauetan amamarekin batera egiten zuen lo eta arrosarioa errezarazten zion ezkutuan.

Transkripzioa

- Bueno bai apurtxu bet bai, ez naz akordetan holan direktamente ez dakit zer, baiña beti izeten giñen despreziautxuek izeten giñen, harek e lehen esan dotsutena, harek erresaridxuek errezatzen zittuen aittak-eta, harek baiño, harekin seme-alabak beti zin guaz apur bat kategoridxakuauek-edo, ze esango dotsut ba? ba gu...

- Baiña zuek dotriñera-eta joan ziñien?

- Asko iñora bez. Bueno, ikesi genduzen bai, oin ahaztu be ein jatez, Aitte Gurie edo holakoxen bat deken gogun oin, danak ahaztute deketaz. Ta ba, bai. Bai primera komuniñoi be ein gendun, oingo modun barik, baridxeu baten akordetan naz abarketatxu batzuk ta ba honakoxe erropatxuren bat-edo.

- Semea: Amumak erunde aittittek jakin barik-edo.

- Ez. Horren beste be ez jua /etxuan/ izengo, horren beste bez, baiña antzin. Bai, bai, txarto bez. Baia beste amuma bat geunken, amuma bi neukezan nik, ta gabin hiru lagunak eitten gendun ohien lo: neure lehengusiña batek, ta harekek amumak eta ba hirurok. Ta hamabost misteridxoko erresaridxeu erreza eraitten oskun /eraitteskun/, bueno, beragaz batera. Ta guk ba lo be eingo gendun, ta Jesus! porta genduzen ta nik ez dakitz zelan kontestetan gontsen, hamabost misteridxokue e! Pentsau, ohien hiru lagun, hiru lagun, ta ba hori zemat urte euko genduzen ba guk? Ordun ba ni lehengusiñe baiño zaharraue nitzen, igul hamabi urte-edo, ez hamabi ez, hamahiru urtegaz ,ez gitxia, zazpi-edo, igul zortzi-edo.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Eskola eta jolasak

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/004
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:04:07. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Jolas desberdin askotara jolasten zuten: potoka, pilotaka, "tres-navíos"ka... Eskolara herrira joaten ziren. Neskak eta mutilak bananduta egoten ziren, neskek maistra zuten eta mutilek gizonezkoa. 14 urtera arte joan zen eskolara.

Transkripzioa

-Ta gero olgau asko eitten giñen pelotaka ta "tres-navios"ka ta potoka ta. Bai.

-Eskolia, Zuberon bertan zekazuen?

-Ez, herrire.

-Hona etortzen ziñazien?

-Bai. Herrire. Oiñez jun ta etorri eitten gendun.

-Orduan auzo guztietako umiak egoten ziñazien hemen batera? Herrixen?

-Ez. Ordun ez euen autobusik ta kotxerik.

-Ez baiña auzo guztietakoak juntauko ziñazien, ez?

-Bai, ez, Goixerrixen bertan euen eskolie. Goixerri ba bastante urrin da. Baiña Malas be bastante urrin da, baiña harek be oiñez herrire etorten zien e! Danak. Danak bertora eskolara. Ta maistra bat eukitten gendun. Neskak bat ta mutilek beste partin. Aparte beti. Bai, ta errekreun olgau ta ba.

-Eta, hori, maisua be desberdiña? Neskak bat eta mutillak beste bat?

-Exakto. Mutilek maisue eukitten eben ta guk maistrie. Bai.

-Ta zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?

-Zazpigaz. Zazpigaz hasi ta hamalaugaz itzi.

-Ta goiz ta atsalde egoten ziñazien eskolan?
 -Bai. Goixin hamabixek artin pentsetan dot. Gero elixan ordu erdi dotriñie ikesten euskera. Ta gero etxera, bazkarixe jan ta ordu bixetan pentsetan dot arratsaldin, baiña ahaztu be eindde dauket e! Arratsaldin seirek artin edo eitten gendun, bai. Ta banderi ipini ta “cara al sol” kantau. Bai.
 -Baiña hori ia gerraostian ala gerra aurrian be bai kantatzen zenduen.
 -Ez. Ni gerra aurrin e, zazpiaz, sei urte neuken gerri hasi zanin. Bai. Gerra aurrekorik ba, bai hantxe, nik biki-lagune dauket eta burruke ein ta ba besterik ez gendun eitten. Ta beste neba zahartxuaue aurrin ibiltten gendun ta holakoxe zerak bai.

4.2. Hileta, gaubela...

- **Hizlaria(k)**: Kareaga Gojenola, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AUL-008/065
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:28:26. **Bukatu**: 01:30:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Norbait hiltzen zenean, gauean gaubela egiten zen; etxera zetozenentzat ardoa eta jatekoa prest egoten zen. Biharamunean izaten zen hileta-elizkizuna. Gorpua andariak eramaten zuten lepo gainean, eta horiei txuleta bana edo afaria-edo ematen zitzaien. Andari lana sekula ez zuten semeek egiten.

Transkripzioa

- Enterruk ba hiltzen zanin gabin gaubeli itten zan, danari dxedaten emon, datozenari edaten ardaue edo koñak korrientie izeten zan, ba mozkortute danak erromeri bat gabin gaubelan. Ta ba bidxamonien enterru. Ta gero anderuri-eta emoten dxakuen txuleta bana-edo, ze lepun eruten zien ba, ta ba nekie hartzen eben ta emon ein biher dxakuen /bidxakuen/ gero hareri enterrue eitten zanien elizakue, ta harek apaldu eitten eben, lauk-edo.

- Ta nortzuk izeten zien?

- Zelako bizi, zelako bidi ta zemat ein eben edo kanbidxau eingo zirin eurek lau ta lau, ze batentzako por ejemplo Naritik ia zelan ekarri leiken? Ta urrin izen ezkerro ba errelebu.

- Ta euzokoak eruaten eben gorpue ganien?

- Bai hombre, erungo zebe ta etxekuk igul. Baiña lehen semik-eta ez zebe eruten guresorik, hori ez, baiña oin bai.

- Ta enterreu, kanposanture eruten zenduezan?

- Bai. Zuk ez dozu ezetu elizan enterretie?

- Ez, ez, ez, ez, ez, ez dot ezautu.

- Entzunde bez amari-ta?

- Hamen Aulestin enterrau ebenik ez dot iñoz entzun, ez.

- Ta gero enterradore papela nok euikitzen eban? herriko bat egon zan enterradore edo bakotzien bat izeten zan?

- Ez, bat. Hemen nik neuk bat ezautu dot, bi zirin, baiña esan nahi dot gizonezko bi. Nik haretzek ezautu dittudaz bakarrik. Oin ba Markiñetik etorten da.

4.3. Elizara ez

- **Hizlaria(k):** Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AUL-010/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Umea hil ostean sepulturara ogi-opila eraman behar izaten zen, baina bere osabak horrelakorik ez egiteko esaten zuen. Bere amama oso fededuna zen, baina bere aita eta osaba ez.

Transkripzioa

- Semea: Ta zelan zan ha zure amak ba ordun, elizara eruten zan ba gauzak, ofrezimentuk-eta.

- A bai.

- Semea: ogi edarra, erun hara sepulturara ogi edarra, ta Jose Miguelek amari ha ez izteko han, zelan da hori? ha ez izteko han, jateko berak!

- Gurin hiru mutil hil zin, nire nebak hiru mutil hil zin, ez dakit zelan hil zin, ez dekot hori, neu naz gaztena, esaten ebena. Ta ordun usetan zan, elizi ba amuma be pndio amuma aitte guri ta baiño gehidxa zan eliziaz eta hobeto zertute euen, gehidxa dediketan zan, ta ba usetan zan etxin hil bajatzu umi edo dana dalakue gero hurrengo domekan elizara sepulturara opille erun biher zan /bizan/, opille, opil bat edo tremesa esaten dxakon, ta amumak ba tremesagaz elizara, hamarretako mezara, ta tio Jose Miguel be han pulpittun ondun-edo, ez pulpittun ondun ez, [...]ondun-edo: "ama, hori gorde eizu etxera hor itzi barik arratsaldien txokotaliaz hartzeko". Ta bestiek ba, pentsau zelako fedie, usadidxue eitten, holakoxe zerak. Bai amumak oindio fedie bai, baiña gure aittek-eta ez, gure aittek-eta orduntxe be inpernurik eta zerurik ez euela.

4.4. Higieneak ez zuen garrantzirik

- **Hizlaria(k):** Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AUL-010/017
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lehen garbitasunari ez zitzaion garrantzia askorik ematen. Ira bila joaten zirenean, apatxekin zapal dutako putzuetako ura ere berdin-berdin edaten zuten.

Transkripzioa

- Dana dala, adelantuk. Zikiñe pranku, oin dana da hijiene ez dakitz zer, derrepente daz kadukaute gauzak, derrepente daz hamaike. Ta pobrie, lehen esan dotsuetena, irak-eta ebai biher izeten

zien udegunin, setiembrien iretan. Egunezko azpidexek eitten, zerak eitteko, ganadun simaurrek eitteko-ta. Ta egarrixek itto biher, ta han txarkutxuk egoten die ba, bakizue, erreka zertzuk, ta behidexek-eta pasetan zin, behidexek pasetan zin, harek eitten eben patxen zeraz han ure eran. Pentsau hijiene, ta hamen gaz! Holako hijiene, han apatxak han zulo huandixaeu ein baleu urek gehidxa urten daixen. Hamen gaz!

4.5. Markinarako takoi altuko zapatak

- **Hizlaria(k):** Zaldunbide Urkidi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AUL-010/040
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:55:17. **Bukatu:** 00:57:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Jantzkeran asko igartzen zen baserritarren eta kaletarren arteko aldea, batez ere Markinan. Bere lehengusina batek Bilboko teladenda batean egiten zuen lan eta askotan ematen zizkion telak. Markinara abarketekin joaten ziren, baina gero takoi altuko zapatak jantzen zituzten.

Transkripzioa

- Jantzkeran-eta igertzen zan nor zan kalekoa ta nor zan baserrikoa?
- Bai, bai asko, oingo aldin asko, sobre todo Markiñen. Markiñen bueno, jente elegante! ta gu ba...
- Zuek zelan jantzen ziñien erromeridxetara-eta joateko?
- Ba juten ahal dogun modun. Zelan esango dotsut ba? dirurik ez zan egoten erosteko ta tergaltxu batzuk. Nik euki naban apur bet suertie nire lehengusu batek Bilboko entzuteko denda baten eitten eban, tela-denda baten eitten eban, zelan esaten dxako mostradoran atzien egoten danari? dependienta, dependientie. Ta han sobretan zin igul retelen natzuk ta igual ekarten eustezan edo ekar [...] josi ta ba zozertxu eitten ibiltten giñen. Ordun dana eukitten gendun ondo, berrogeta hamar kilogaz-edo berrogeta hamalagaz jantzen dozuna jantzen dozuna, zintturoie ipintzen bozun be bai, zer eitten, danak jantzen zin ondo.
- Ta abarketakaz be joaten ziñien erromerire?
- Bai abarketakin. Ta abarketakin Markiñera-eta abarketakin jun bien, baiña gero eruten genduzen handidxa eittiarren eta altiau izetearren-ta zapata takodunek be eruten genduzen gero harek paketen ostabe, handik Markiñetik Malasera bakizu? takoeikin be mutil gustukue baten topetan eurekin takoeikin be sufridute takoeikin etorri Malasera be, oye, segun! Ta eskastxuae eta noberan disgustukue bazan abarketak jantzi-ta. Geure tranpak? holan! Bueno, tranpa bakotzik eitten gendun, ez pentsau kosta bakue izen zanik gure gazte denporie be.

5. Aisia

5.1. Erromeria plazan eta inguruetako jaiak

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/009
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:09:56. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena**: Jaietan erromeria egoten zen Aulestiko plazan. Lehen askozaz jai gehiago ospatzen ziren, pazkoetan ere, Pazko Eguna, biharamuna eta hiru jai izaten zituzten. Kofradietan ere jai asko zeuden, Zubero auzoan abuztuan San Lontzoak ospatzen zituzten. Auzoetako jaietara joateaz gain, Markinako Karmenetara ere joandakoak dira oinez. Bertan gertatutako anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Gero gaztetan erromerixi egoten zan beti plazan ta jaixek be gehixa egoten zirin. Pazkutan be egoten zirin, Pazko egune ta bixamona ta hiru jai. Mezi be danetan egoten zan e! Oin ba jaixek be kendu dittue, baiña asko jai gehixa. Ta plazan eukitten gendun erromerixe ta dantzan ein ta.

-Plazan hemen esaten dozu.

-Hamentxe herriko plazan. Oin kopradixetan be bai, Zuberon San Lontzo, agostun izeten da. Ta gero beste kopradixetan be danin. Euren egunetan.

-Ta eukitxen zeunduen ohitxurarik beste auzuetara joateko-edo?

-Bai, bueno, gu gaztetan hainbeste ez giñen juten, Malaxera be baiña. Honaxe Burlara. Hori Burla izen zan hau elixie ein orduko edo herriko jenti juten zan horixe tokizkue. Ta bai, haraxe bai. Ha jai moduen hartzen zan herrixen be e! Ointxe be agostun izen be eitten da.

-Ta bestela, beste herri batzutara, Markiñara edo Lekeitxora edo?

-Markiñara bai, Karmenetan iñoz jun giñen oiñez. Ta gero han mantekaue jan, dirurik be ez gendun eukitten, txakur handixe-edo. Ta Jose Legarranin, hau, gaseosie edan. Harek keñetie eukitten eban ta haixe erateko ta gero mantekaue jateko. Ta baten barraketan bai, tia batek lehenengo han zerin itxi osten bai, Karmenetan. Ta mantekaue probau nebanin hain gozue, pentsau ba zelako iñuzentzixe, “amari erun biher dotset /bitset/” pentsau neban, baiña urtu dxaten dana ta ez amantzako ta ez neutzako. Ez euen aukerarik baiña...

-Orduan ilusiñoa ez? Igual Markiñara edo juateko edo? Askotan ez ziñazien juango ta.

-Bai. Sasoz etorten giñen e! Jun mezetara-edo ta gero bueltan egun argiz. Oiñez. Zera, lagun kuadrillie. Ta umik bakizu.

-Bidetxua egongo zan hemendik Markiñara oiñez ezta?

-Ez geuntsen igerten. Ordun asko ibiltten zan oiñez. Ta ba, pozik.

5.2. Santa Eufemia eguna

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/010
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:12:12. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- **Laburpena:** Santa Eufemira ez ziren joaten bidetik, mendiz joaten ziren. Santa Eufemia egunean erromeria egoten zen, baita postuak ere. Postuak-eta taberna legez jartzeko ordaindu egin behar izaten zen. Soinu-jotzaileak egoten ziren, eta gizonek ordaindu egin behar izaten zuten dantzari aritzeko.

Transkripzioa

- Ta bestela Santa Eufemira ta? Santa Eufemira?
- Santa Eufemire ta oiñez. Bueno, Zuberotik ba hurra da egon be e! Baiña gero juten giñen hor kamiñotik barik han mendittik ziher. Oin dana sasidxe da ta ba ez da zertzen. Baiña mendittik ziher ondo.
- Mendiz.
- Bai.
- Ta zer egoten zan lehen, Santa Eufemi egunian-edo?
- Santa Eufemi egunin erromeridxe itzela ta gero jentik tabernak ipintten zittun ta harek tabernak hartzeko, puestuk, udaletxin diru bat pagau biher izeten eben. Ta hara tabernara jeneru eruten eben burdidxekin ta euridxe eitten bazan txarto. Gero ondo pasau eitten gendun e! Laban einde lantzin bat, geu be jausten giñen ta talo itzelakin ta. Bakizu, gaztik zera.
- Ya, inporta ez.
- Bai.
- Orduan egoten zien, taberna postuak zabaltzen zitxuen.
- Bai, igul eongo zirin han tabernak, herriko tabernak gehidxenak erungo eben tabernie ta eongo zirin sei bat taberna, bai. Euren lekutan. Leku handidxe da egon be. Bai, euren zera ta leku hobakue gehidxa pagetan eben. Udaletxik jan eitten eban han ta ha igul ez eben pagau eingo, baiña leku ona. Ta oin ez da egoten. Oin bakarrik bertan da etxe bat eindde ta hantxe.
- Ta erromerixie esan dozu, zer egoten zan soinu-jolen bat, edo?
- Soñojotzailiek bai. Ta soñojotzailiek gaiñera, zera, gizonezkuk pagau ein biher izeten eben e! Ez dakit zen zan pagetan dabena. Andrazkuk ez.
- Dantza bakoitzeko?
- Ez, ha sellu ipinidakun nik pentsetan dot /pentsetot/ gau guztireko.
- Eta zer izeten zan, hemen ingurukoren bat edo soiñue joten?
- Bai. Han Santa Eufemin igul hiru grupo be egoten zirin ta hemen herriko plazan udaletxeko partin bat eoten zan ta besta goiko partin. Bi. Bai. Diru pillu batzen eben e!
- Haura, dantzako dirua euren dako izango zan, ez?
- Klaro. Soiñu jotzen dabenantzako. Euren be han plazan soiñu jotzen, oin bertan herridxen, domekatan beti, jaidxetan beti egoten zan ta ha ez dakit herridxek ipini nahiko harek ez eban baiña Santa Eufemitan pagau ein biher izeten eben e! Euren zera.
- Euren puestua?
- Bai.
- Harek be bai pagau eitxen zebe?
- Bai. Ta ba, hortxe, lehenengo meza nausiera etorten giñen, arratsaldin errosaridxora ta gero pasiun ein hor gora ta behera.

5.3. Andrerik ez tabernetan

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AUL-003/011
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Andrazkoak ezin izaten ziren tabernara sartu, bakarrik San Joanetan sartzen ziren pastelak-edo jateko, gizonezko batek gonbidatuz gero. Idi-probak ere egoten ziren jaietan.

Transkripzioa

- Andrazkuk ganera tabernara sartzerik ez gendun eukitten, bueno. Tabernara juten zinak andra galduk edo zirin. Ta gizonezkuk bai e! Hasi, taberna asko euen lehen hamen. Oin gitxi da. Han beheien hasi ta hor zerera, Lukasenera artin dana korriduten eben. Baiña guk bakarrik San Junetan, pastelak nonok, gizonezko batek, inibitetan bagaittu.

- Bakarrik ezin sartu.

- Bakarrik ezin sartu ta dirurik be igul ez gendun euko, baiña. Bai, baiña gizonezkuk bai e! Gero probak be egoten zirin ta probatara gizonezkuk juten zirin.

5.4. Hondartzara urtean behin

- **Hizlaria(k)**: Kareaga Gojenola, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AUL-008/074
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:38:13. **Bukatu**: 01:39:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Hondartzara urtean behin joaten ziren maistrarekin, baina hankak baino ez zituzten bustitzen. Behin neska bati arrain batek haginka egin zion. Karraspio hondartzarako joan-etorria oinez egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta plaire-ta. Plaire zuek ez ziñien juaten, ezta?

- Ez. Plaire juten giñen urtin baten maistriaz ure ikusten eta uren ortozik hantxe ibiltzen apurtxu baten.

- Bai?

- Ta hamen paseu dxakun, jun giñen ta arraiñek hainke ein otsen neska bateri. Ein leike arraiñek hainke? bai, bai. Iñuzentemente igul etorko zan hondarrin-edo, ta behintzet- eta zelako sustue-ta. Lekitxora jun ta etorri oiñez.

- Karraspidxora edo Isuntzara?

- Ez, ez, ez, Karraspidxora.

- Orduen urtien behin eitten zenduen?

- Bai. Juten giñen, juten giñenin juten giñen.

- Ta ze? gonien altxeu ta...
- Bai. Gona barrenak busti ta geure txanka pistolok, hantxe.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Aulestiko lehen ibilgailuak

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/013
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Lehenengo autoa herrian taxi bat izan zen. Juanita Angizek kamioiak zituen garraiorako. Okinak ere bazuen. Zaldi-gurdiak ere ezagutu zituen, gehienbat karga eramateko erabiltzen zuten. Autobusari "korreoa" deitzen zieten, Lekeitiotik Bilbora arte joaten zen.

Transkripzioa

-Kotxik be gitxi euezan.
-Lehenengo kotxea herrixan, zeñiek ekarri zeban?
-Bueno, lehenengo kotxie, taxize euken Ubillak. Hantxe zan. Ta gero honek, Juanita Angizek eta kamioie eukezan, transporterako ta bai, Astudiko zerak be bai. Lehenengo kaballoko karrue ta gero kotxie be euki eban e! Ta panaderuk be bai. Baiña kotxe gitxi.
-Ta zaldi karroak, kaballuekin ta?
-Zaldi karrue bai, eduki eban.
-Hori be ezautu zenduan orduan hemen?
-Bai, Astudiko gizonak bai.
-Baiña zer eruaten zan kargia edo jentia eruateko be bai?
-Han nik jenteik, neu sekulo ez nintzen jun ta, baiña nik pentsetan dot gauzi saltzeko edo nonor erun be ingo eban. Ezautu ein neban e!
-Ta autobusik eta?
-Autobuse bai, korriu esaten geuntsen. Ha zan, goixin juten zan zazpiretan ta illuntzin ez dait ba bederatziretan edo etorten zan. Bai, ha beti ezautu neban e! Hari lehen korriu esaten geuntsen. Harek kartak erun ta ekarri eitten zittun ta.
-Korreoa?
-Korriu, bai.
-Ta nora joaten zan? Hemendik edo nundik nora pasatzen zan?
-Bai, Bilbora artin bai.
-A, Bilbora arte?
-Bai. Lekittotik etorten zan.

6.2. Ameriketatik ekarritako irratia

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/016

- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:20:11. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Berak 16 urte zituela ekarri zuen bere nebak irratia Ameriketatik. Lehenago auzoko baten etxera joaten ziren irratia entzuten.

Transkripzioa

- Beste entretenimenturik bez, telebisiñorik bez, radixorik bez, ezebez.
- Ez. Radixu nire nebik, Ameriketa jun zanak ekarri eban nik hamasei urte neukezanin. Ta beste auzoko batek euki eban Marixeneku ta haraxe juten giñen radixu entzuten. Bai, baiña, besteik be ez geunken ta ba. Gero hemen, horko etxin euken batek zera ta kanpotik entzuten gendun ta geuk pentsetan gendun, danin eitten ete daben, umin kontue: harek radixuk danin igul eitten ete daben geure zera izeten zan ba.

6.3. Argindarra

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Argia beti ezagutu izan du baina eskasa. Kortara joaterakoan petrolioa edo karburua eraman behar izaten zuten lana egiteko. Kontuz ibili behar ziren lastoa-eta ez erretzeko. Gero Iberdrolak jarri zien baina arazoak izan zituzten. Munitibarreko batek linea ostu eta bi urtez argi gabe egon ziren.

Transkripzioa

- Eta bestela, zu umia ziñanian etxian ura ta argixa ta hori beti ezagutu dozu?
- Bueno, argidxe bai, baiña eskasa. Honek, lehenengo egon zan argidxe, hamen Zabalbeaskoak edo euken saltue ta hango argidxe. Txikidxe zan, baiña kortara juten giñenin be petroliu edo karburu-edo erun biher izeten gendun edo kandelie kortako biherrak eitteko. Ta ba, han zera egoten zan asko, bedarra ta idie ta ba haretxeri sue emon ez deixon kontuz egon biher izeten gendun. Euki ein gendun, baiña txikidxe. Ipurtargixe lakoxie. Ezebe ez zan ha e! Ta gero Iberduerok ipini eban, baiña hamen linie galdu eitten eban ta gero hamen Munttubarko batek linie ostu ein euskun ta urte bidxen egon giñen argirik barik. Ta gero orduntxe “dos cientos veintin” handik urte bire ipini zan.
- Osea hasieran hori urakin ta ibiltan bazan gaiñera igual uda partian eta gutxiau euko zenduen, ez? Argi gutxiau?
- Bai.
- Lehortia egon ezkeru edo.
- Ez dakit ba uregaz edo hamengu, baiña ha argi eskasa euken “ciento veinticinco”kue Iberduerona be eskasa e! ze gurin be telebisiñoie biher zan ta beste auzoko batek be bai. Ba harek ipintten baban bueltaka hasten zan, indderra gitxi. Baiña halan ta guzti be labadora bat neuken krik-krauk

eitteku, bentaji eitten eusten e! Ze haixe ipintteko lain. Oin telebisiñoie bueltaka hasi eitten zan baiña. Gero programi be gitxi euen. Ez dakit ba nik, goixin egon be ez dakit eitten zan. Ahaztute deuket. Illuntzin edo, arratsaldin bai. Baiña gero beste auzokuk ipintten baban indderra gitxi ta bueltaka hasten zan telebisiñoie.

6.4. Ura

- **Hizlaria(k):** Urkidi Astorkia, Cresen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AUL-003/018
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Ura beti ezagutu zuen. Zuberon 1935 inguruan jarri zuten ura, garbitokia ere jarri zuten. Ura faltan izanez gero erre kara joaten ziren.

Transkripzioa

-Eta ura, beti ezautu dozu?

-Ure? Zuberon eta hamen herrixen ez zan egon e! Zuberon “trenta y cincun”-edo ipini eben. Nik bost bat urte-edo neukela. Labaderu be ein eben ta ure han goittik etorten zan. Ur ona. Oin setienbrin-ta beti eskasa egoten zan ta gitxitxua, zarratu eitten zan ordu batzutan ta bai. Baiña ure behintzet beti ezautu neban nik e! Ta ure kentzen ebenien, erre kara jun biher jabonaduri eitten.

-Bai, bestela erropak garbitzeko ta be askan eitxen zenduen-edo?

-Bai. Erropak garbittu etxin be igul ze ba txorru be bageunken e! Txorro bat. Baiñoik eta ez. Komune kortara jausten zan holako zera. Gero bai, etxie gurin be ein zanin baiñu ta danak ein zirin, baiña aurretik ez, aurretik zera.

-Hasieran kortara. Kortan zulua ta.

-Bai, ta ba txorrue zera ta, bai. Oin, ure edateko beste leku batetik igul ekarten gendun umik, freskuaue edo hobi dala-ta, baiña ur gozu euen Zuberon e!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aulestiko denda eta tabernak (AUL-003/026)

Aulestin bost denda egon ziren. Tabernak ere asko egon ziren, banan-banan aipatzen ditu. Gizonak bakarrik joaten ziren. Domeka arratsaldetan dendak zabalik egoten ziren, eta kakahueteak-eta erosten zituzten.

2. Feriak, probak eta erromeriak (AUL-003/027)

Ganadu feria eta probak egiten ziren. Baina andrazkoentzako ez ziren izaten. Erromeria asko izaten zituzten. Dantza egitea ere bekatua omen zen abadearen ustez. Erromeria eta gero mutilek neskei etxera laguntzen zieten.

3. Abadeak eta mezak (AUL-003/028)

Gerra denboran sei bat abade egon ziren Aulestin. Sasoi hartako abadeek ez zuten jornalik izaten. Mezak goizeko zazpitan hasten ziren, hiru abadek zuzendutako mezak izaten ziren. Domeketan, jai erdietan, jaietan, erromeri egunetan, pazkoetan... egoten zen meza. Mezetara joaten ez zena txarto ikusia zen.

4. Dotrina eta sakramentuak (AUL-003/029)

Dotrina eskolan erdaraz ikasten zuten eta herrian euskaraz. Lehen jaunartzea zazpi urterekin egiten zuten. Noizean behin konfesatzera joaten ziren. 14 urterekin-edo Hijas de Mar&iacut;anekoa izaten zuten hilaren bigarrenean, hilaren hirugarrenean Jesusen bihotzekoa, bederatziiurrenak, Kontzesiokoa...

5. Eskolako kontuak (AUL-003/032)

Eskolan ez zuten azterketarik izaten. Entziklopedi bat, idazlanak egiteko koaderno bat, arbel bat eta tintadun lumak izaten zituzten. Eskolan dena egiten zuten erdaraz baina arin ikasi zutela dio. Sestaoko maistra izan zuten, Rosario Aiestaran. Arratsaldetan josten ikasten zuten, emakumezkoek baino ez. Gustura joaten zen eskolara, lagunekin-eta egoten zelako: olgetan, karramarroak harrapatzen errekan...

6. Ezin bainatu, hankak busti baino ez (AUL-003/033)

Zuberotik "Iguti"ra joaten ziren bainatzera. Ez zuten bainujantzirik eta hankak baino ez zituzten bustitzen. Mutilak bai bainatzen ziren, mutil gehienek uger egiten ikasi zuten. Lekeitiora ere joandakoak dira, baina hankak baino ez zituzten bustitzen. Bere lehen bainujantzia 25 urte garai erosi zuen.

7. Bizikletaz gaztetatik. Mutilek aukera gehiago (AUL-003/034)

Zuberon bik zuten bizikleta. Behin Bermeora arte ere joan ziren. Lehen noizean behin agertzen zen ibilgailuren bat eta bideak ere estuagoak ziren. Gaur egun ezin daitekeela horrela ibili dio. Mutil askok zuten bizikleta baina andrazkoek osteratzen ez. Mutilek aukera gehiago zituzten, ikasketetan ere bai.

8. Bilbon jostun ikasten (AUL-003/035)

Bilbon egon zen josten ikasten, bere lagun min batekin. Bertan zinemara joaten ziren tranbia hartuta. Orduko galtzak arin apurtzen zirela dio eta lan asko zuten. Izeko baten etxean pasatzen zuen astea Bilbon bertan, guztira sei hilabetez egon zen. Inoiz ez da aritu jostun legez beharrean, etxekoentzat baino ez du josi.

9. Bost urtez Venezuelan, arepak egiten (AUL-003/036)

Ezkundu eta gero bere senarra Venezuelara joan zen, eta bost urtetara izan zuten lehenengo semea. Bere amak hazi zuela bere lehenengo semea dio. Lau urteko umea amamagaz utzi eta Venezuelara joan zen bost urtez senarrarengana. Senarra gaixotu ostean bueltatu ziren etxera. Oso gustura

egon zen bertan. Negozioa zuten bertan, arepak egiten. Arepa zer den azaltzen du eta zelan egiten den.

10. 10 urtera arte etxean lanean eta gero neskame (AUL-004/002)

Solaguren eta Gadaur auzoak non dauden. 10 urterekin neskame joan zen baserri batera eta 6 urte egin zituen bertan. Baina neskame joan aurretik ere etxean lan egin behar izaten zuen. Umetako lanak: galdaratxoa garbitzeko lanak, itaurrean egin...

11. 10 urterekin Belendizera neskame (AUL-004/006)

10 urterekin Belendizera, Gernikatik hurbil, joan zen neskame. 6 urte egin zituen bertan eta urtean birritan etortzen zen etxera. Bertan bizimodu txarra izan omen zuen, lan asko egitea tokatzen zitzaion eta. Bera artean umea eta beste ume batzuk zaintzen zituen. Hasieran eskola emango ziotela agindu zioten, baina ez zuten eskolara bidali. Urtean bakailao bat ordaintzen omen zioten. Etxeko lanak ere egiten zituen.

12. Domeketan "harrigorrika" lagunekin (AUL-004/007)

Domeketan jai izaten zuen, neskame zegoela. Bazituen lagunak. Harrigorrika aritzen ziren. Lantzean mendira ere joaten ziren.

13. Eibarren neskame, mediku baten etxean (AUL-004/009)

Eibarren lau urte egin zituen neskame. Ugazaba medikua zen eta ondo hartzen zuten. Etxeko beharrak etxekoandrearekin batera egiten zituen eta arratsaldetan umeei ibiltzen zen. Ama gaixotu egin zen eta harrezkero beti etxean egon zen. Udan hiru hilabete egiten zituen Zarautzen, Eibarko familiarekin.

14. Gabonetako afari berezia (AUL-004/010)

Belendizera autobusez joaten zen baina etxerako bidea oinez egiten zuen. Gabonetan afari berezia egiten zen; aza-olioak, tripakiak, bisigua, karakolak, turroia eta intxaur saltsa jaten zituzten. Alaiak izaten zirela dio. Natibitate egunean txokolatea izaten zuten.

15. Gabon bezperan mutilak eskean (AUL-004/011)

Santa Ageda kantatzen ibiltzen zen jendea. Gabonetan, afalostean karta jokoan aritzen ziren; berak ez zuen jokatzeko. Gabon bezperan eskean ibiltzen ziren mutil gazteak, kantuan. Dirua eta arrautzak batzen zituzten. Neska gazteei bertsoak abesten zizkieten.

16. Gerrarengatik upelean gordeta; gerraostean goserik ez (AUL-004/014)

Gerraz ez da askorik akordatzen, lau urte zituen eta. Gogoan dauka upel baten barruan sartuta egon zirela, ezkutatuta. Taloa eta esnea, morokila, indabak, txahala, txerria... izaten zituzten jateko eta ez zuten goserik pasatu. Txerria hiltzea debekatuta zegoen. Gerraostean eskean ibiltzen ziren kanpotarrak.

17. Nebek ikatza nola egiten zuten (AUL-004/023)

Belarra moztan eta ira ebakitzen ibiltzen ziren, nebak segarekin eta berak igitaiarekin. Aitak etxean lan egiten zuen baita basoan ere idiekin. Bere nebek

ikatz egiten zuten. Ikatza nola egiten zuten azaltzen du. Ikatz-tokia zaintzeko bertan lo egiten zuten. Batez ere artea erabiltzen zutela dio. Txabola izaten zuten.

18. 9 urterekin neskame (AUL-008/002)

9 urterekin neskame lanetan hasi zen. Hainbat lekutan egon zen: Markinan, Etxebarrian, Barinagan (Markina), Aginagan eta Narean (Aulesti). Aginagan umezain eta ardizain ibili zen batez ere, baina denetariko lanak egiten zituen. 6 hilabetetan etxera etorri barik egon zen nahiz eta 9 urte izan.

19. Jornalik eta eskolarik barik umezain (AUL-008/003)

9 urterekin Aginagara joan zen neskame eta bertako ugazabarekin hartu-eman ona zuen, oso gustura egon zen. Ez zuen jornalik izaten, jatekoaren eta ardi-lanaren truke. Lehenago bere ahizpa egon zen Aginagan. Sasoi hartan ez zen eskolara joan, baina gutun bat idazteko beste bazekien.

20. Neskametzako egunerokoa (AUL-008/005)

Neskame zegoela eguneroko bizimodua zein zen azaltzen du. Zer jaten zuten kontatzen du: indabak, artoa, taloa...

21. Neskame zegoela, behiak jezten (AUL-008/013)

Etxebarrian, neskame zebilela, danetariko lanak egiten zituen: umeak zaindu, behiak jetzi, soloko lanak egin... Bertan ikasi zuen behia jezten, eta gerora ere berak jetzi zituen etxeakoak. Bi neskame egon ziren etxe berean.

22. Erromerietarako berokiak (AUL-008/015)

Etxebarrian Aginagan baino gusturago egon zen erromeriara-eta joaten zelako; Barinagako erromeriara joaten zen eta mutilekin ibiltzeko aukera zuen. Bere nebak soldadutzan ibilitako kapota tindatu eta berak beroki moduan ibili zuen Markinako Kontzezio egunean, baina gerora ez zuen gehiago jantzi. Bilboko lehengusina batek emandako beroki beltz bat izan zuen gerora eta Barinagako erromerian hura izan zen dotoreena.

23. Mutilekin dantzan; neska laguntzen (AUL-008/017)

18 urte inguru zitueneko argazki bat du eskuetan. Barinagan Gelatxo soinu-jotzailea egoten zen. Mutilei dantzan egiteagatik kobratu egiten zieten. Domekero egoten zen erromeria Barinagan; oso gustura joaten ziren. Erromeria bukatzen zenean mutilek laguntzen zieten etxera neskei. Arrate eguneko erromeriara ere joaten ziren.

24. Probak (AUL-008/020)

San Juanetan Aulestin Markinako danbolin-jotzaileak eta ezpata-dantzariak egoten ziren. Probak ere beti egoten ziren, Justinari asko gustatzen zitzaizkion. Probalari asko inguruko herrietatik etorritakoak izaten ziren. Posturak ere egiten ziren.

25. Frontoia, probalekua eta pilotariak (AUL-008/022)

Umetatik ezagutu zuen frontoia Aulestin, baina teilatu bakoa zen; oraingo modukoa zen proba-harri eta guzti. Pilotan eliza ondoko horman ibiltzen ziren. Aulestin baziren pilotariak: Ubilla anaiak eta Juan Korta.

26. Senarra eta semea esne-banatzaille (AUL-008/026)

Etxean beti izan zuten ganadua. Bere senarra eta semea esne-banatzaille ibiltzen ziren furgonetaz; baserrietako esnea batzen zuen eta Bilborako preparatzen zituen. Enrique Garro ere bere senarrarekin batera aritzen zen sozio. Goizetan esnetan ibili eta gero, arratsaldetan harrobira joaten zen lanean. Aulestiko harrobia betidanik ezagutu du; behargin gehienak Markina aldekoak ziren.

27. Jolasak eta ugariak ziren mamarroak (AUL-008/030)

Sokasaltoan, txorromorroka eta aponeka jolasten ziren umetan. Zelan olgetan zuten azaltzen du. Lehen txindurriak, saguak, ardiak (arkakusoak), zorriak... ugari egoten ziren baserrietan.

28. Piztiak eta uretako animaliak (AUL-008/032)

Lehen ez ziren azeriak eta basurdeak ikusten, orain, ordea, bai. Putzuetan, zapoak, ugaraxoak (igelak) eta ezkailuak egoten ziren ugari. Esne-galdara eramanez gero ezkailuz betetzen zen galdara. Lehen errekan ezkailuak eta karramarroak ere egoten ziren; gaur egun, ordea, ez dago horrelakorik.

29. Arropak errekan garbitzen (AUL-008/033)

Errekara arropen xaboia kentzera joaten ziren; lixiba-harria zuten bertan, arropa bertan jotzeko. Ura etxera ekartzen zuten eta harekin garbitzen ziren. "Txinbo" xaboia erabiltzen zuten garbitzeko.

30. Aulestiko dendak (AUL-008/034)

Aulestin 3-4 denda egon ziren: Zarrabenta, Donatona...; janari-dendak zein tela edo arropa-dendak. Genaro aguazila zapata-konpontzailea ere bazen.

31. Galtzak eta abarkak egiten (AUL-008/035)

Bere etxean bere amak egiten zituen larruzko abarkak; Justinak tornuarekin eta ardatzarekin haria egiten zuen eta bere ahizpak galtzak. Galtzerdi asko saldutakoak dira beraien etxean. Lehenengo ardi-lana garbitu egin behar izaten zen izpitzeke. Zapi batekin azaltzen du zelan izpitzen zuten. Bere aitak 5 ogerleko ordaindu zituen ardatzagatik.

32. Dotrina (AUL-008/040)

Dotrinan zer ikasi zuten kontatzen du. Etxean amak irakatsitako errezoa esaten du. Dotrina mutilekin batera ikasi zuten nahiz eta ez jesarri batera. Beraien etxean 4 ahizpek zapata pare berarekin egin zuten lehenengo jaunartzea.

33. Lanbretta eta autoa (AUL-008/048)

Senarrarekin Gernikara astelehen arratsaldetan joaten zen autobusez. Gerora Lanbretta bat zuten eta harro-harro joaten ziren bertan. Beranduago auto zahar bat zuten. Lanbretta ezkondu ostean erosi zuten, 25.000 pezeta ordaindu zuten.

34. Argindarra eta ura (AUL-008/050)

Etxean bi bonbilla zituzten: goiko giltzari ematerakoan beheko amatatzen zen eta alderantziz. Ura ezkondu eta urte askotara ekarri zuten etxera; bere

senarrak etxe aurrera ura ekarri zuenean, bere ama asko poztu zela gogoratzen du.

35. Sagarrak saltzen (AUL-008/052)

Sagarrondo asko izaten zituzten eta sagar asko saltzen zuten. Bere aitak inguruko herrietan ere sagarrak erosten zituen Zornotzara eta Gernikara eramateko; zaldiz ibiltzen zen eta gurdia, tribulia, bete-beteta eramaten zuen. Mota desberdinetako sagarrak saltzen zituen: urtebetea, urdin-sagarra, bost kantoia...

36. Don Manuel medikua (AUL-008/055)

Abadeari garia-edo ematen zitzaion. Medikuak, don Manuelek, hiru hilerik behin dirutan kobratzen zuen; estimua zioten herrian. Etxez etxe ibiltzen zen, ez zuen kontsultarik. Baten bat joan behar izaten zitzaion abisatzera etxera joan zedin.

37. Errota (AUL-008/058)

Ibarrolan bazuten errota. Artoa zein garia eramaten zuten irinetarako. Errotariak ehuneko bat kentzen zuen, horrela ordaintzen zitzaion errotariari. Gerra sasoian errotak zarratuta zeudela-eta, Arratzuraino joaten ziren.

38. Kanpai-hotsak (AUL-008/060)

Lehen kanpai-hotsak ezberdinak izaten ziren: ume bat hilez gero, aingeru kanpaia izaten zen; andrazkoa hilez gero 3 kanpai eta gizonezkoa izanez gero 4 edo alderantziz; sua egonez gero kanpai nagusiak jotzen ziren, agudo joaten ziren laguntzen.

39. Lutoa (AUL-008/062)

Etxekoren bat hilez gero urtebetez lutoa janzen zuten; ostein, medio-lutoa. Lehen larregi egiten zen bere ustez; gaur egun, oster, gutxiegi.

40. 'Kaiser' (AUL-010/002)

Juanitaren aitari Kaiser deitzen zioten. Egunkari zaharrak irakurtzen zituen eta sasoi hartan Alemaniako kontu zaharrak zekartzan, eta auzotarrei berak ematen zien hango berri. Hori dela-eta aitak eta seme-alabek ezizen hori jaso zuten. Juanitaren semeak ere azalpenak gehitzen ditu.

41. Eskolara gutxi (AUL-010/004)

Eskolara gutxi joan ziren baserriko lanak egin behar izaten zirelako, beti zegoen zer egin. Eskolara Aulestiko plazara joan zen, 4 kilometroko bidea zuen. Askorik ikasi ez arren harategiko kontuak ederto baten eramaten zituen.

42. Bizimodu gogorra; gutxirekin konforme (AUL-010/007)

Bere aita luzaroan egon zen Ameriketean, baina zorte txarra izan zuen diru aldetik. Nagusiagotan astoz joaten ziren Ondarroara baserriko jeneroa saltzera; hartutako diruarekin etxerako gauzak erosten zituzten. Etxean bainurik ere ez zuten eta errekan garbitzen ziren. Gauza gutxirekin konformatzen ziren, abarketa berriak izatea nahikoa zen. Malaxen errentan bizi ziren eta Gabonetan 80 ogerlekoko (400 pezeta) errenta ordaindu behar izaten zuten. Beraiek ez zioten oilaskorik ematen etxeko ugazabari, baina beste askok bai.

43. 13 urterekin neskame (AUL-010/008)

13 urterekin neskame joan zen herriko beste auzo batera, Zetokizera. Zerrategia zuten eta bertan ere aritzen zen laguntzen. Jatekoaren eta diru apur baten truke egiten zuen lan. Neska asko ikasteko asmoz joaten zen neskame lanetara.

44. Mutilak neska-laguntzen (AUL-010/021)

Mutilen eta nesken arteko harremanetan lehengoa larregikoa zen, baina gaur egungoa ere bai. Erromerietatik bueltan mutilek etxera laguntzen zieten neskei; Barinagako eta Etxebarriko erromeriak aipatzen ditu.

45. Argazkilaria eskua sartzen (AUL-010/023)

16 urte ingururekin joan zen lehenengo aldiz Lekeitiora argazkia ateratzera bizikletaz. Argazkilaria edonon jartzen zieten eskua, baita titietan ere. Beraien adineko mutil bati derrepentean emango zion aurpegian, baina gizon nagusi bati...

46. Bizikleta (AUL-010/025)

Bizikleta ez zuen edonork izaten, baina bera neskame zegoen etxeko ugazabak bazuen eta bera harekin ibiltzen zen.

47. Mutilekin kontuz (AUL-010/027)

Mutilekin ibiltzen ziren, baina musurik ez zen ematen; hala ere, ez ziren ezer egin barik geratzen. Berari bera baino nagusiagoak gustatzen zitzaizkion.

48. Ezin dena konfesatu (AUL-010/029)

Konfesatzera joanez gero ez zuten dena kontatzen. Edozergatik edozer esaten zuten eta kontuz ibili behar izaten zen. Askok inbidiagatik egiten zuten berba.

49. Nobioarekin disimuluan (AUL-010/030)

Erromeriara egun osoan lan egin ostean joaten ziren. Bikotekidea izan arren ere, disimulatu egin behar izaten zen.

50. Aulestiko erromeria (AUL-010/033)

Baltsean ere aritzen ziren. Batzuk Hijas de Mar*í*a kongregaziokoak ziren, eta ezin zuten dantzarik egin, eta abadeari esaten zioten nor ibili den dantzan. Aulestiko plazan domekero egoten zen erromeria, Malaxen San Martinetan baino ez. Erromerian Faustino egoten zen filarmonika jotzen. Mutilek dantzan egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten.

51. Mutilen aurrean ezta txizarik ere (AUL-010/035)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Barinagara, Markinako Karmenetara, San Kristobaletara... Mutilen aurrean edozerk ematen zien lotsa, txizalarria izanda ere ez zuten txizarik ere egiten.

52. Santa Eufemitan ura saltzen (AUL-010/038)

Gerra aurretik, Santa Eufemia egunean ura igotzen zuten diru apur bat ateratzeko, ura saltzeko postu bat jartzen zuten. Buru gainean eramaten zuten ura, edarrian, buru gainean eramaten zen galdara handian.

53. Irakaskuntzako lehen urteak (AUL-020/002)

Irakaslea da. Hasieran Munitibarko auzo eskola batean egon zen. Handik Miraballesera eta Markina-Xemeinera joan zen. Umeak hazi arte geldi egon zen baina gero eskola partikularrak ematen hasi zen, batez ere baserritarrei.

54. Eskola partikularrak etxean (AUL-020/003)

Berrogei ume inguru zituen eta taldeka antolatzen zituen. Apaiza dotrina ematera joaten zen, euskaraz. Inspektorea etorri zitzaion, salaketa bat tarteko, baina laguntza eskaini zion lekua ondo egokitzeko. Horren ondoren laga egin zuen.

55. Lanari laga eta berriro ekin (AUL-020/005)

Lagun batekin berba egin ondoren, gidabaimena ateratzea erabaki zuen. Aldundiko auzoko eskoletan ibili zenez, ezagutzen zuten irakaskuntzan eta bere bila joan ziren. Lau alabaren ama zelarik, lanean hasi zen.

56. Inspektore batek auzo eskolak itxi zituenekoa (AUL-020/006)

Lanean hasi zen, liburuak prest zeuden. Hamasei ume inguru zituen. Inspektore batek baserri eskolak itxi zituen. Orduan, Berreñon hasi zen eta gero, Markinan. Gustura dabil Markinan.

57. Magisteritza ikasketak (AUL-020/007)

Eskola unitarioaren onurak eta zailtasunak azaltzen ditu. Zazpi urteko batxilergoa egin zituenez, hamalau ikasgai izan zituen magisteritzan. Falangeko ikastaroa ere egin behar izan zuen Zornotzan, hiru hilabete intentsibo.

58. Soinua jotzen elizan urte askoan (AUL-020/010)

Ezkundu eta gero, apaizak elizan soinua jotzeko eskatu zion. 1954ko urtarrilaren 1ean jo zuen lehenengoz. Osabak erakutsitako solfeoa eta berez ikasi duena ditu oinarri.

59. Aulesti eta Murelaga leku-izenen esanahiak (AUL-020/012)

Aulesti eta Murelagaren esanahiez berba egiten du.

60. Lixiba zelan egiten zuten (AUL-020/013)

Arropak lehen zelan garbitzen ziren kontatzen du: beratzen lagatzen ziren eta gero errekan kentzen zitzaien xaboia, arropak joz. Bihurritu eta eseki egiten zituzten, ortuan edo ganbaran.

61. "Gora daigun Munitibar" kanta (AUL-020/014)

"Gora daigun Munitibar" kanta abesten du.

62. Amak hirukiak izan zituen, auzoko emaginak lagunduta (AUL-021/003)

Zortzi anai-arreba izan ziren. Jaiotzen azkenak bera eta bere bi anai-arrebak izan ziren, hirukiak. Medikuri ez zegoen; auzoko emaginak lagundu zion amari. Aita basoan zebilen lanean. Hartu zuen sorpresarekin Jesus, Maria eta

Jose izenak jarri zizkieten. Garai hartan ez zen batere ohikoa hirukiak jaiotzea. Egunkarian azaldu zirela dio. Foru Aldundiak diru-laguntzaren bat eman zien. Amak ez zuen denentzat esnerik eta etxeko behi-esnearekin hazi ziren.

63. Izan zituen irakasleak: Zugazaga eta Zaldunbide (AUL-021/005)

Herriko eskolan ibili zen umetan. Zugastietako Emiliano Zugazaga izan zuen irakasle. Gehien zekien ikaslea utzi eskolan eta maistrarekin paseatzera joaten ei zen. Maisu izan arren, ez zekiela askorik dio. 60 ume inguru ibiltzen ziren batera. Neskak aparte, maistrarekin. Gerora Lucas Zaldunbiderekin eskola partikularrak hartu zituen eta harekin ikasi ei zuen ikasi zuen apurra.

64. Dotrina abadearekin; dena zen bekatu (AUL-021/010)

Abadearekin ikasten zuten dotrina, egunean ordubete. Dena zen bekatu, eta dena konfesatu behar.

65. Maila ezberdinetako hiletak; Garizuma (AUL-021/011)

Gaur egun ez dago abaderik Aulestin, baina 7 abade ezagutu ditu herrian. Maila ezberdinetako hiletak egoten ziren. Bulda ordaintzen zutenek maila altuagoko hileta izaten zuten. Garizuman ezin izaten zen dantzarik egin.

66. Soinu-jotzailea plazan; dantza egiteagatik ordaindu (AUL-021/012)

Soinu-jotzaileak egoten ziren Aulestin. Plaza zozketatu egiten zen, izan ere, dantzariak ordaindu egin behar izaten zuten dantza egitearren eta soinu-jotzaileak jasotzen zuen diru hori. Mutilek ordaintzen zuten, neskek ez. Mutilak dantza-eske joaten ziren neskengana; sarritan kalabazak. Neska-laguntzea.

67. Inguruko herriko jaietara; neska-laguntzea (AUL-021/014)

Neska-laguntzea urrutira ere egiten zen, neska gustukoa izanez gero. Inguruko herrietako jaietara joaten ziren, oinez. Bizikleta bazuten, baina ez dela inoiz ibili dio. Kotxea ekarri zuen gero.

68. Bilbon kotxearekin asko ibilitakoa (AUL-021/015)

Kotxearekin asko ibili izan da Bilbon, enkarguak egiten. Bilbo Aulesti bezain ondo ezagutzen duela dio. Duela gutxira arte kotxez joaten zen Bilbora.

69. Aulestiko jaiak, herrikoak eta auzoetakoak (AUL-021/016)

Aulestiko jaiak. San Juanak ziren jai nagusienak. Eta, ondoren, Santa Eufemiak. Auzoetako jaiak. Soinu-jotzaileak egoten ziren eta herri osoa joaten zen. Ermitak zeuden auzo guztietan. San Juan basiliza zen garai baten herriko eliza nagusia; oraingo eliza berria dela dio.

70. Aulestiko lantegiak: olak eta zerrategiak (AUL-021/017)

Aulesti industrialia izan zela dio. Garai baten bi ola egon ziren: Angizola eta Bengola. Berak ez zituen olak martxan ezagutu, baina lau zerrategi ezagutu zituen martxan. Harrobiak ere badaude inguruan eta jende asko ibili da bertan lanean. Garai batean dirua mugitzen zen herrian eta jende asko ibiltzen zen tabernetan ere.

71. Gaztetan baserrian lan egin behar (AUL-021/018)

Baserri handia zuten eta lan egin behar. Ganadu kontuak izaten ziren bere ardura. Segarekin mozten zuen belarra. Gero, bizimodua ateratzeko Bilbora joan ziren eta han jaio ziren seme-alabak.

72. Gariaren prozesua; gerraostean eskuz jo behar (AUL-021/020)

Belarra segarekin ebaki, eskuarearekin batu eta astoarekin garraiatzen zuten etxera. Lurra aitzurrarekin jorratu. Garia ez zen jorratzen; zemendian (azaroan) ereiten zen eta ekaina-uztaila inguruan ebaki. Garia eskuz jotzen zen gerraostean, makinarentzat gasolinarik ez zegoelako. Gero, makinarekin garbitu eta errotara. Zortzi errota zeuden Aulestin, baina zazpi prezintatuta egon ziren.

73. Gerraostean errotak itxita; estraperloan ibili behar (AUL-021/021)

Zortzi errota zeuden Aulestin, baina zazpi prezintatuta egon ziren gerraostean. Sei-zazpi urte zituela, arreba eta biak behin Ereñora arte joan ziren gauez, errotara, astoa hartuta eta beste behin Uarkako errotara. Gauez egiten zuten ogia, ezkutuan.

74. Lantzean 8-9 ogi egiten zituzten, aste osorako (AUL-021/022)

Etxe guztiek izaten zuten labe-sua. Gerraostean prest izaten zuten, egurra sartuta, gauean ezkutuan ogia egiteko. Lantzean 8-9 ogi egiten ziren, aste osorako. Horrez gain, artoak eta tremesak ere egiten zituzten. Sagar sasoian, otzarakada sagar erretzen zuten.

75. Hamarrenak elizari; abadeen jarrera (AUL-021/024)

Hamarrenak: etxean hartzen zenaren hamarrena elizari eman behar. Umeak hamarretik gora izan arren, etxean hazi behar izaten ziren, abadeek ez zuten umerik nahi. Beraiek emakumeekin ibili arren, mutil gazteei neskak ezin zirela ukitu esaten zieten eta, gainera, egindakoak konfesatzera behartzen zituzten.

76. Aulestiko errotak (AUL-021/025)

Aulestin zortzi errota egon ziren garai batean. Gogoan du Nabarnizetik mandoekin etortzen zirela errotara, laboreak hartuta.

77. Gerraosteko ekonomia: debekuak eta gosetea (AUL-021/026)

Baserri ona zuten eta ez zuten goserik pasa gerraostean, ogia behintzat lortzen zuten eta. Mutikotan amarekin Bilbora sagarrak saltzera joan zenean, jendea laranja azalak jaten ikusi zuen. Gogoan du aitik gau baten bi txerri hil zituela, ezkutuan, debekatuta zegoen eta. Harrapatuz gero, txerria kentzen zuten. Behiak ere kentzen zituzten ukuilutik frankistek.

78. Garai bateko elikagaiak: txerrikia eta esne-gaina (AUL-021/027)

Txerrikia gatzun-askan gordetzen zen. Zezina. Haragia fin-fin moztuta ematen zieten umeei. Esnearen esne-gaina ere bai ogi gainean jarrita. Lapikoari ere botatzen zitzaion haragia, baina lehenbizi beratu egin behar, gatza kentzeko.

Etxean gurasoak, anai-arrebak eta izeba nagusia bizi ziren. Etxe guztiek izaten zuten gela bat behean, ezkaratz ondoan, edadeko pertsonentzat.

79. Baserriko bizimodua; abereak, basoak, jatekoa (AUL-021/029)

Gabonetan beti egoten zen jateko bereziren bat. Diru apur bat zuenak bisigua ere bai. Oilo-salda beti izaten zuten etxean. Baserri handia zuten eta, familian asko izan arren, urte osorako haragia izaten zuten, etxeko ganadua eta txerria hilda. Handik edo hemendik ateratzen zuten diru pixka bat. Pinu asko zuten. Basoan lan asko egina da. Ikatza ere egiten zuten.

80. Ikazkintzaren inguruko azalpenak I (AUL-021/031)

Ikatza egiten ibilitakoa da. Txondorra nola egiten zuten.

81. Ikazkintzaren inguruko azalpenak II (AUL-021/033)

Ikatza egiten ibilitakoa da. Txondorra nola egiten zuten. Txondorrek 15 egun edo hiru aste behar zituen egosteko, ikatz-tokiaren tamainaren arabera. Bertan egon behar izaten zen, txondorra zaintzeko. Txabola egiten zuten horretarako. Ikatza ondo egositakoan, atera eta zabaldu egiten zen, hoztu arte; eta, ondoren, zakuetan sartu. Herrian saltzen zuten.

82. Arto-zopak gustuko (AUL-021/034)

Txondorra zaintzen txabolan egoten zenari, etxetik eramaten zioten jatekoa: ogi-zopak, arto-zopak... Kafea ez zuen hartzen, gurasoek pixka bat hartu arren. Arto-zopa hotza da gehien gustatzen zaion jatekoa.

83. Bonbardaketaren abisua adarra jota; karobia babesleku (AUL-021/035)

Inguruan bazeuden karobiak. Beraien etxean "kaleroa" zegoen, biribila eta estuagoa. Gernikako bombardaketaren egunean babesleku gisa erabili zuten. 5 urte besterik ez zituen arren, gogoan du amama zumitzezko aulkian nola eraman zuten. Herriko batek ematen zuen bombardaketaren abisua, adarra jota: "gau-adarra".

84. Karearen erabilerak: sororako eta etxeak zuritzeko (AUL-021/036)

Karea zertarako erabiltzen zen. Urarekin nahastuta "letxadia" egin eta etxeak zuritzeko erabiltzen zen. Lurra ontzeko soroan ere botatzen zen karea, zomorroak uxatzeko. Simaurra ere botatzen zen lurra ontzeko. Lurra lantzeko tresnak.

85. Lurra lantzeko tresnak: area, bostortza, alperra... (AUL-021/037)

Lurra lantzeko tresnak. Bi are mota zeuden: bertakoa horzduna zen, baina gerraostean bestea etorri zen, frantsesa esaten zitzaiona. Bostortza nolakoa zen. Alper-harria, sokila apurtzeko. Aitaren esaera: "solun ez dot gura nik alperrik". Goldea. Laietan egindakoa da; laukoa edo bostekoa erabiltzen zuten. Emakumezkoak ere aritzen ziren.

86. Ilargiaren eragina landareetan eta txerri-hiltzean (AUL-021/038)

Ilargiaren eragina landareetan. Jakoba (Errekondo)rekin ez ei dago ados simaurraren inguruko kontuetan. Ilbeheran erein izan da beti. Hala ere, ilargien egoerak ere desberdin izendatzen dituztela orain dio. Itsasoa ere ilbeheran baxu egoten da eta ilberrian mugitu egiten da. Txerria ilbeheran hiltzen zen beti, hobeto kontserbatzen ei zelako. Emakumeei ez zitzairen uzten txerriaren odola ukitzen, hilerokoarekin egonez gero.

87. Erroiak uxatzeko teknika (AUL-021/040)

Erroiak uxatzeko teknika: bat hil eta zintzilik jarritz gero, besteek alde egiten dute.

88. Bedeinkatutako ereinotzarekin egindako gurutzeak soroetan (AUL-021/041)

Erramu eguneko bedeinkazioak. Ereinotza bedeinkatzen zen eta harekin soro bakoitzerako gurutze bana egiten zen. Pazko bezperan "misa del gallo" gin izan da. Bera izan da su bedeinkatua eramateko ardura izan duena 37 urtez. Elizpean egiten zen bedeinkazioa. Ur-bedeinkatua etxera eramaten zen gero.

89. Gaixotasunak eta erremedioak; ereinotza (AUL-021/043)

Garai bateko gaixotasun txarrena bularrekkoa zen. Gripearentzat edo eztularentzat lurren hartzen ziren, eukaliptoarena, erromeroarena... Ereinotza gauza askotarako erabiltzen zen. Batzuek jatekoari ere botatzen diote. Bedeinkazio guztietan erabiltzen zen.

90. San Juan sua eta kanta; trumonira eta elorri zuria (AUL-021/044)

San Juan loreak San Juan bezpera gauean erre behar izaten ziren sutan. Suaren inguruan zer kantatzen zen. Gero suaren gainetik salto egiten zuten. San Juan egunean trumonira ekarri izan du urte askoan menditik, etxeko ateburuetan jartzeko. Trumonira eta elorri zuria jartzea zen ohitura,

91. Gabonetako kanta (AUL-021/046)

Jesusen jaiotzaren inguruko kanta: "Belengo urian estalpe batian...". Jesusek astoa eta idia izan zituen aldamenean jaiotzean: "Astuen arrantzia, idixen arnasia, halan berotu eben Jesusen jaixotzia". Erregenetan "Erregiak datoz, Jesus adoratzeko" abesten zuten. Bera ez zen inoiz ibili, baina umeak etxerik etxe ibiltzen ziren kantuan eta eskean.

92. Gerra sasoian isilik; gerraosteko errazionamendua (AUL-021/047)

Gerra sasoiko oroitzapenak. Umetxoa izan arren, gogoan du etxean isilik egoteko esaten ziotela. Garai arriskutsua zen, ez zegoen hitz egiterik. Gerraosteko errazionamendua. Amak txerriaren koipea edarran (portzelanazko ontzian) gordetzen zuen, urte guztirako. Txerri haragia edo txorizoak ere izaten zituzten. Garbantzia jateko berezia izaten zen, domeketakoa.

93. Gerraostean eskekoak baserrira (AUL-021/048)

Kaleko jendeak txarto pasatu zuen gerraostean, janari eza zela eta. Asko joaten ziren baserrira eskean. Adineko gizon-emakumeek errezatu egiten zuten, janariaren truk. Amak denei ematen zien zer bait. Aulestiko bertako gutxi batzuk ere ibili ziren eskean. Baserrietan ematen zietenarekin pasatzen zuten astea.

94. Inguruko herrietako euskara antzerakoa (AUL-021/057)

Aulestitik Munitibarrera, Amorotora... eta Gernika ingurura arte euskara ez dela asko uste du. Lekeitiora bai, hango euskara ezberdina dela dio.

95. 1945ean Aulestiko 5 pilotari profesionalek jokatu zuten Eibarren (AUL-021/059)

Aulestiko frontoia elizpeko horma izaten zen. 1945ean Aulestiko 5 pilotari profesionalek jokatu zuten Eibarren, San Juanetan: Ubilla anaiak, Kortabitarte, Korta eta Aboitz.

96. Probalarien inguruko bertsoak (AUL-021/061)

Probalarien inguruko bertsoak.

97. Inguruetako uztargileak (AUL-021/063)

Inguruko uztargileak. Haltza, intxaurra edo pagoarekin egiten zen uztarria. Gurdi-hedeak, pertika sartzeko. Sapak.

98. Adarrarekin komunikatzen ziren menditik mendira (AUL-021/066)

Gau-adarra. Garai batean adarraren laguntzaz komunikatzen ziren mendi batetik bestera.

99. Urriola auzoko baserriak (AUL-021/068)

Urriola auzoko baserriak.

100. Aitak ordua nola jakiten zuen (AUL-021/071)

Erlojurik erabiltzen ez zen sasoian, aitak ordua asmatzen zuen, eguzkia zen egunetan, Garibile baserria erreferentziatzat hartuta.

101. Amama behar asko egindakoa (AUL-022/003)

Umetan pozik bizi ziren Garatxa baserrian. Aitita-amamak ere aldamenean bizi ziren. Amamak egiten zituen lanak: basoa aitzurtu, patata erein... Buruko zapiarekin eta gonarekin ibiltzen zen. 67 urterekin hil zen arren, zaharragoa ematen zuen, behar asko egindakoa zen eta. Beraiek jatekoa eramaten zioten.

102. Biriketako gaitzarentzako erremedioak (AUL-022/004)

Biriketako gaitzarekin hil zen amama, berak 8 urte inguru zituela. Orduko erremedioak: kristalezko ontzi baten kotoia jarri, alkoholarekin busti eta su eman. Hura saihets aldean jartzen zuten gero. Bilbon bizi zen izeba batek tea ekarri zien, sendagaitzat. Baina amama ez zen sendatu.

103. Gaitzak, sendabelarrak, enplastoak (AUL-022/005)

Sendabelarrak. Garatxoak, zaldarrak... Aitari zaldar bat kendu zioten eta gurutze formako marka geratu omen zitzaion. Gogoan du berak sarna ere izan zuela. Enplastoak egiten ziren, baina ez du gogoan nola.

104. Baserri handia zuten; logelak eta koltxoia (AUL-022/007)

Baserri handia zen beraiena, sabai handia zuena. Bera umea zela obra egin eta 5 logela atera zituzten, gutxi zeuzkan eta. Hiru ahizpak ohe baten egiten zuten lo. Artilezko koltxoia. Bordatudun gainekoa ere bazuten. Lastamarrega, artoaren azalez egindako koltxoia. Behin han barruan ezkutatu ziren.

105. Arropak garbitzeko prozesua (AUL-022/010)

Arropa garbitzea (lixiba) aldian behin egiten zen. Arropak xaboitu eta barrika handi batean jartzen ziren, koloredunak behean eta zuriak goian. Gainean zaku garbi bat jarri eta sutako hautsa botatzen zen. Ura botatzen zitzaion gainetik. Amak zazpi baldekada ur garraiatu izan zituen.

106. Xaboia egiten zen etxean (AUL-022/011)

Erositako lixiba umetan ezagutu zuen jada. Xaboia etxean egiten zen. Berak ez zuen egin inoiz, baina nola egiten zen ikusi bai; seboa, olio eta "xaboia egiteko botika" bat erabiltzen zirela dio.

107. Etxea garbitzeko, erratza eta lasto-azaoa (AUL-022/013)

Etxea garbitzeko bazuten erratza. Bestela, lasto-azaoarekin garbitzen zituzten ganbara edo sabaia. Gogoan du koskortu ostean egongelako lurzorua lixibarekin garbitzen zutela, gonbidatuak zetozenean.

108. Arropak gurdian hartu eta erre kara astintzera (AUL-022/014)

Arropa garbitzeko, sutako hautsa erabiltzen zen eta ereinotza, usain gozoa emateko. Aitak behiak uztartu eta guardian eramaten ziren arropak, erre kara, astintzera. Arropa gutxi zenean, etxetik gertuago bazituzten arropak astintzeko harria eta aska. Emakumeen lana izaten zen. Bera ez zen hasi lan horretan beranduagora arte. Umetan karramarroak harrapatzen ibiltzen ziren errekan.

109. Barruko arropak: etxean egindako pantaloia eta gerruntzea (AUL-022/015)

Aitaren kamiseta barrenarekin berak egin zituen berarentzat pantaloia (azpiko arropak). Amak ez zituen erabiltzen. Lastamarregaren azalarekin arropak egin zituzten. Amantalak zakuarekin egiten zituzten, oihala erosteko dirurik ez zegoen eta. Bularretakoaren orde z "goruntze" (gerruntzea) erabiltzen zuten. Ama 17 urterekin ezkondu zen; aita 20 urte nagusiagoa zen.

110. Prakekin ezin ohitu (AUL-022/016)

Aspaldi baten prakak ere izan zituen arren, ez zen ohitu prakak erabiltzera. Garai batean jendeak esaten zuen emakumezkoak "gizonezkotu" egin zirela, prakak jantzi zituztelako.

111. Abarkak janztetik takoiak janztera (AUL-022/017)

Abarkekin ibiltzen ziren. Kalerako zapatak ere izango zituztela uste du, baina mezara ere abarka "txato"ekin joaten ziren. Gaztetan ez zuten halakorik, baina gerora takoiak janzteak gustatu izan zaio.

112. Aita hil zenean, bi urtean lutoarekin (AUL-022/018)

Aita hil zenean, lutoa eraman zuen. Bi mantila erabiltzen ziren, bat laburra eta bestea luzea, orratz buru beltzekin kateatuta. Bi urte egin zituen: lehenengoa beltzez eta bigarrena luto-erdian. Amama lehenago hil zen eta artean baserrian zegoenez, ez zuen egin haren lutorik. Garai batean sakratua zen lutoa.

113. Koltxoiak nola garbitzen zituzten (AUL-022/021)

Koltxoiak garbitzeko, barruko lana atera eta jo egiten zen. Azala garbitu ostean, berriz lana sartu eta josi egin behar. Bera gaztea zela hasi ziren malgukidun koltxoiak.

114. Gaubeila etxean (AUL-022/023)

Koinatua hil zenean, euren etxean egin zitzaion gaubeila. Bi gau izan ziren. Arrosarioa erreztatzen zen, baina edatekoa ere banatzen zen eta jendea lorrindu egiten zen. Goizera arte geratzen zirenei txokolatea edo beste zerbait ematen zitzaion gosaltzeko. Hilakutxak bi motatakoak egoten ziren gutxienez.

115. Hil-kanpaiak (AUL-022/025)

Garai batean sei abade ere egon izan ziren Aulestin. Kanpaiak ere gehiago jotzen ziren. Hil-kanpaiak; kanpaien arabera jakiten zen hildakoa gizonezkoa, andrazkoa ala umea zen.

116. Su-kanpaiak eta etxe erre eskea (AUL-022/026)

Etxeren bat erretzen zenean, kanpaiak jotzen ziren etengabe eta jendea laguntzera irteten zen. Aulestin kalean izan zen sute baten inguruko azalpenak. Gero etxe erre eskea egin zuten, dirua batzeko, etxea berriz eraikitzen laguntzeko.

117. Eskolan josten ikasi zuen `Maistra baltza´rekin (AUL-022/028)

Aulestin ibili zen eskolan. Brodatzen eta puntua egiten ikasi zuen. Alfonbrak ere josi zituen. Sestaoko Rosario `Maistra baltza´ izan zuen irakasle. Goitizena nondik zetorkion. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan.

118. Aulestiko eskolako kontuak (AUL-022/031)

Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara. Beraiek etxera joaten ziren bazkaltzera. Urrutiago bizi zirenak jatekoarekin joaten ziren eta ezagunen baten etxean bazkaltzen zuten. Berogailua zuten eskolan eta egurrak ekartzen zizkioten maistrari.

119. Aulestiko eskolan dena gaztelaniaz (AUL-022/033)

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten. Euskaraz eginez gero, zigorra izaten zuten. Eskolatik irtendakoan elizara joaten ziren, dotrina ikastera. Han latinez, gaztelaniaz eta euskaraz ikasi zuela dio. Francoren garaian kalean ere ez zegoen euskaraz egiterik.

120. Ama onik etorri zen Gernikatik bonbardaketa egunean (AUL-022/037)

Gerraren hasiera. Tropak San Migel aldetik sartu ziren. Gernika bonbardatu zuteneko oroitzapenak. Neba eta biak belarra ebakitzen zeuden. Euren baserria altu dagoenez, hegazkinak gertutik ikusten zituzten. Jendeari erasotzen zietenez, arbolapean gorde ziren. Ama Gernikan zegoen, baina onik itzuli zen.

121. Elorrioko bikote bat euren etxean ezkutatuta (AUL-022/038)

Amak Elorrioko senar-emazte batzuekin harremana zuen, haien maizterrak izan zirelako. Gerra sasoian euren baserrian egon ziren ezkutatuta, alaba Jaurlearitzako arduradun batekin ezkonduta zegoelako. Hegazkinak zetozenean, denak ezkutatzera joaten ziren eta emaztea pianoa jotzen geratzen zen.

122. Botoa bizkaitarrei, bost ogerlekoren truke (AUL-022/040)

Aita karlista zen. Karlistak vs. bizkaitarrak. Bizkaitarrek bost ogerleko eman zizkioten amari botoaren truk. Amak etxeko ekonomiari eta familiari begiratzen zion politikari baino gehiago. Jende gogorra zegoen.

123. Hiru neba gerran (AUL-022/042)

Hiru neba ibili ziren gerran: nagusiena milizianoekin, bigarrena txofer lanetan Jaurlearitzan eta gazteena falangistek eraman zuten, 18 urte bete gabe. Hanka-orpoa hondatuta baimenarekin etorri zen etxera. Sendatu zenean, ez zuen frontera itzuli nahi. Suertez, gerra bukatu zen bien bitartean. Aulestin baziren frontera ez joatearren ezkutatutako mutilak ere.

124. Gerra sasoian Aulestin hildakoak (AUL-022/043)

Gerra sasoian Aulestin hildakoak. Auzoan, Goikoerreta baserrian, bi anaia. Ebroko borrokan ere hil zen beste herritar bat.

125. Koinatua nola irten zen kartzelatik (AUL-022/044)

Susanaren koinatua kartzelan egon zen luzaro gerra sasoian. Gaez eramaten omen zituzten presoak kartzelatik, hiltzeko. Hori ikusita, zoroarena egin zuen, mediku batek aholkatuta, eta bizirik irtetea lortu zuen.

126. Senarra sei urtez soldadu (AUL-022/045)

Gerrateak interes handiegirik ez jartzeko adinean harrapatu zuela bera dio. Senarrak, berriz, sei urte egin zituen gerran eta, horren ostean egin zuen banderaren zina. Hasieran nazionalistekin joan zen, baina harrapatu egin zuten eta gero frankistekin ibili zen. Eibarrera bizikletan joaten zen, han neskame zegoen arrebarengana.

127. Errotak prezintatuta; Arratzura errotara gaez (AUL-022/050)

Gerra sasoian errotak zigortu egiten zituzten lanean harrapatuz gero, eta itxi egiten zituzten. Bekoerrota beti zigortuta eta Goikoerrota libre. Beraiek normalean Bekoerrotara joaten zirenez, hura itxita zegoenean Arratzura joaten ziren gaez. Harrapatuz gero, astoa eta guzti kentzen zuten. Bekoerrota zabalik egon arren, ez ziren hara joaten, aitzak uste zuelako hangoek bota ziotela Lekeitio-belarra ortuan.

128. 1937an Aulestin jaioa (AUL-028/002)

Maria Dolores Salutregi. Dolores deitzen diote. Salutregi ezkontza abizena du. Aitaren abizena Malaxetxebarria zen, baina Etxebarria-ra aldatu zuten. Amarena Aranburu. 1937ko irailaren 1ean jaio zen, nahiz eta jaiotza-data abuztuaren 31n jarri zioten. Aulestiarra, Murelagakoa.

129. Denda izan zuten Aulestiko herrigunean (AUL-028/003)

Aita Markina-Xemeingoa zuen eta ama aulestiarra. Herrigunean bizi ziren eta denda zeukaten etxebizitzaren behealdean. Denetarik saltzen zuten: jatekoa, telak, oinetakoak... Ama egoten zen dendan. Aita banaketan ibiltzen zen furgonetarekin. Bi neba nagusiago zituen. Batzuetan laguntzen zion amari dendan, baina 15 urte zituela joan ziren EEBBra.

130. 1952an Ameriketara; ez zuen joan nahi (AUL-028/005)

Aita gaztetan Ameriketara egon zen eta beti zuen gogoan hara itzultzea. Amaren neba bat bertan bizi zen eta hark proposatuta joan zen aita 1951n. Beraiek 1952an joan ziren, justu berak 15 urte bete zituen egunean. Doloresek ez zuen joan nahi eta 18 urte betetakoan Euskal Herrira itzuliko zela esaten zuen, baina pentsaera aldatu zitzaion gero. New Yorken bizi ziren batzuek amari Idahori buruz esan ziotena.

131. New Yorketik Idahora kotxez osabarekin (AUL-028/006)

Aita lanean zegoenez, amaren neba joan zitzaien New Yorkera bila eta kotxez egin zuten handik Parmarako (Idaho) bidea. 10 egun behar izan zituzten. Amak eta Doloresek bidean ikusten zituzten etxetxoak oiloentzako etxeak zirela uste zuten. Osabaren etxean bizi izan ziren. Aitak ardiekin lan egin zuen hasieran, baina berehala azukre lantegi batean hasi zen, Oregonen.

132. Ikasketak zirela eta, Parmatik Boisera (AUL-028/007)

Parman bizi izan ziren osabaren etxean. Eskola amaitu zuenean, Boisera joan zen institutura. Han familia euskaldun baten etxean egon zen hiru hilabetez. Lanean hasi zenean, beste neska euskaldun batekin batera pisu batean bizi izan zen.

133. Eskolan isilik, ingelesez ez zekielako (AUL-028/008)

Ameriketara joan zenean ez zekien tutik ere ingelesez. Neba zaharrenak hara joan orduko zerbaite ikasi omen zuen eta hark lagundu zien hasieran. Eskolan isilik egoten zen, hasieran ez zekielako ingelesez eta, pixka bat ikasi zuenean, ez ziotela ulertuko pentsatuta. Parman ez zegoen euskaldun asko, baina Boisen bai, eta han hobeto ibili zen.

134. Boisen euskaldun asko; senarraren aita Munitibarkoa (AUL-028/009)

Boisen euskaldun asko zegoen. Euskal etxean elkartzen ziren. Bera baino bi urte nagusiagoa zen neska euskaldun batekin bizi izan zen lau urtez. Gero Rikardo Salutregirekin ezkondu zen. Senarrak, Boisen jaioa izan arren, aita Munitibarkoa zuen.

135. Abade euskaldunak ezkondu zituen Boisen (AUL-028/010)

Senarra nola ezagutu zuen. Zinemara edo dantzara joaten ziren. Senarra Boiseko suhiltzaile izan zen 25 urtez. Doloresek Estatuarentzat lan egiten zuen bulegoa batean. 1961ean ezkondu zituen Santos Rekalde abade euskaldunak. Gero abadetza utzi egin omen zuen. Senarrak adarra jotzen dio, ez daudela legez ezkondata esanez.

136. Santurtzitik New Yorkera itsasontziz (AUL-028/012)

Ameriketara bidaia. Santurtzitik New Yorkera 8 egun egin zituzten itsasontziz. Ez zuen ezer jaten barkuan, jateka ez zitzaiolako gustatzen eta mareatuta egoten zelako. Tristura ere izango zela uste du. Hirunaka egon ziren geletan. Amak izarak eta maindireak ere eraman zituen badaezpada maletan, baina gero ez zieten balio izan.

137. Dantza zalea betidanik; Boiseko dantza-taldea (AUL-028/014)

Aulestin herrigunean bizi ziren. Denek elkar ezagutzen zuten. Domeketan dantzara joaten zen. Beti asko gustatu izan zaio dantza. Boisen senarra eta biak dantzan ibiltzen ziren. 1960 inguruan jarri zioten Oinkari izena dantza-taldeari. Boiseko Euskal Etxea.

138. 20 urtez itzultzaile lanean (AUL-028/017)

Bulegoko lana utzi egin zuen alaba jaio zenean. Gero itzultzaile lanetan ibili zen 20 urtean. Espainolez ez zekien asko, baina ingelesez ez zekiten mexikarrei laguntzen zien eta berak ere espainiera ikasten zuen bide batez. Emakume euskaldun batez bitartez hasi zen. Leku askotara joaten zen, baita Boisetik kanpora ere. Sarritan epaitegira joan behar izaten zen Nampara itzultzaile lanetara.

139. Epaitegian itzultzaile lanetan (AUL-028/019)

Epaitegira joan behar izaten zen Nampara itzultzaile lanetara.

140. Alabek euskaraz ulertu bai, baina hitz egin ez (AUL-028/020)

Alaba nagusiak ez zuen hitzik egiten ingelesez eskolan hasi zenean. Gaur egun, euskaraz ulertzen dute, baina hitz egin askorik ez. Senarrak amerikarrak dituzte. Euskal Herrira joan zirenean, lagunek esan zieten elkar ulertzeko ondo moldatu zirela.

141. Senideen bizimodua Ameriketan (AUL-028/024)

Neben ibilbidea Ameriketan. Nebetako batek hegazkin konpainia baten bulegoetan lan egin zuen New Yorken eta, bestea, berriz, bizargin lanean jardun zuen. Berak 18 urterekin Euskal Herrira itzuliko zela esaten zuen, baina

gero iritzia aldatu zuen. Amak ez zuen etxetik kanpora lanik egin, baina ingeles pixka bat ikasi zuen. Ez zen asko irteten etxetik, lagunekin telefonoz hitz egiten zuen eta batzuetan bisitan ere etortzen zitzaizkion Oregoneko lagunak. Gidatzen ere ez zuen ikasi. Aulestin ez bezala, EEBN beharrezkoa da kotxea.

142. Familia euskaldunen arteko harremanak Boise inguruan (AUL-028/026)

Gurasoek Oregoneko familia batekin harremana zuten. Gizona Berriatukoa zen eta amaren familiak lehendik ei zuen harremana. Familia euskaldunen arteko harremanak. Euskaldunek ostatuak ere izaten zituzten. Letamendi ostatuaren nagusia, Leandra, Rikardoren (Doloresen senarra) aitonaren arreba zen.

143. Lekeitioko arrain freskorik ez Boisen (AUL-028/027)

Amak euskal erako jatekoak ipintzen jarraitu zuen EEBN joanda ere. Elikagaiak lortzeko arazorik ez zuten izaten. Aulestin Lekeitiotik ekarritako arrain freskoa jaten zuten; Boisen ez dago halakorik.

144. Nazionalitate amerikarrarekin, baina euskaldun (AUL-028/029)

Bihotzez euskalduna da, baina paperetan amerikarra, hango nazionalitatea du eta. Nazionalitatea lortzeko, azterketa bat egin behar izan zuen. Konstituzioaren, presidenteen eta beste hainbat konturen ingurukoak ikasi behar izan zituen.

145. Aulestiko Pagodiaga baserrian jaioa (AUL-029/002)

Jose Goitiandia Uriarte, 1942ko San Jose egunean jaio zen Aulestin, Pagodiaga baserrian. Bi nebatatik nagusiena. Gurasoak ere aulestiarak zituen. Ameriketan Jo deitzen diote.

146. Lehenengo aita Ameriketara eta gero bera (AUL-029/003)

Aulestin ibili zen eskolan. Ez zekien gaztelaniaz eta hantxe ikasi ei zuen apur bat. Berak 9 urte zituela, aita Ameriketara joan zen, ardiekin lan egitera. Handik 10 urtera, 1961ean, Jose joan zen aitarengana eta aita Euskal Herrira itzuli zen. Aitak ez zuen nahi Josek ardiekin lan egiterik, mendian bakarrik ibili behar delako.

147. Familia osoa Ameriketara (AUL-029/006)

Jose Ameriketara joan zen aitarengana eta handik hilabetera aita etxera itzuli zen. Bi urteren ostean, anaia joan zen Ameriketara eta, ondoren, aita eta ama ere bai, azkenean, 1964an. Amarentzat gogorra izan zen, baina urtero itzultzen zen Aulestira udan.

148. Ameriketara bidaia (AUL-029/007)

19 urterekin joan zen Ameriketara, aitak amerikar nortasuna lortu zuenean. Bidaia: Bilbotik Portugalera, handik New Yorkera eta, azkenik, hegazkinez Boiserara. 9 egun egin zituen Shoshonen, Sun Valleyn (Idaho) lanean hasi zen arte.

149. Lehen lana Idahon: platerak garbitzen (AUL-029/008)

Sun Valleyn (Idaho) hasi zen lanean, tren konpainiaren hotel batean, platerak garbitzen. Beste langile euskaldun batzuk ere bazeuden. Hotel handia zen. Turistak joaten ziren, batez ere eskiatzera. Itzultzaile lanetan aritzen zen emakume baten bidez lortu zuen lana. Hasieran ez zekien ingelesez, baina pixkanaka ikasten joan zen. Ahoskera dela zailena dio.

150. Sun Valley Inn hotelean lanean (AUL-029/009)

Hasieran platerak garbitzen hasi zen Sun Valley Inn hotelean (Idaho) eta, ondoren, zerbitzatzen. 400 langile baino gehiagok lan egiten zuten elkarren ondoan zeuden bi hoteletan. Langileentzat etxeak zeuden hotel ondoan eta han jaten eta lo egiten zuten. Zerbitzari lanetan platerak garbitzen baino askoz hobeto irabazten zen. Turistak joaten ziren, amerikarrak gehienbat. Propinak.

151. Urtegiaren eraikuntzan Montanan (AUL-029/010)

Urtegi berriaren eraikuntzan lan egin zuen uda batez Montanan (AEB), hasieran peoi moduan eta gero makinekin. Behargin asko ibili ziren. 5 urte behar izan ziren urtegia eraikitzeko.

152. Hanka hautsi eta lanik ezin egin (AUL-029/011)

Kamioiarekin ardientzako lastoa banatzen lan egin zuen denbora labur batez. Gero, hanka hautsi zuen eta sei hilabetez lanik egin gabe egon zen. Hanka sendatzeko, diru asko gastatu behar izan zuen, garai hartan aseguratik ez zegoelako.

153. Kamioiarekin jatekoa banatzen Idahon (AUL-029/012)

Sun Valleyn (Idaho) kamioiarekin jatekoa banatzen lan egin zuen. Jatekoa Sun Valleyko bi jatetxe handietan prestatzen zen eta gero beste jatetxeetara banatu. Neguan eski estaziora ere eramaten zen. Egunean hiru bidaia egiten zituen hiruna lekutara. Hiru urtez jardun zuen lan horretan.

154. Euskaldunak Sun Valleyn (Idaho) (AUL-029/013)

Sun Valley Inn hotelak beharginentzat zuen gunean bizi izan zen kamioiarekin jatekoa banatzen ibili zen garaian. Bertan egon zen bigarren aldian jada euskaldun gutxiago zeuden, nahiz eta artean baziren batzuk. Gaur egun bera da herrian (Ketchumen) bizi den euskaldun bakarra.

155. 1966tik aurrera zabor-bilketan Idahon (AUL-029/014)

1966an Wood River Rubbish zabor-bilketa negozioa erosi zion Jose Goikoetxeari. Hasieran berak bakarrik lan egiten zuen, baina pixkanaka beharginak hartzen joan zen. Kamioiarekin etxe, jatetxe eta dendetako zaborra bildu eta zabortegira eramaten zuen. Herri bakoitzak bere zabortegia zuen. 1981era arte zabor guztia batera biltzen zen.

156. Seme-alabek jarraitzen dute zabor-bilketarekin (AUL-029/015)

Hasieran bera bakarrik ibiltzen zen zabor-bilketan kamioiarekin. Orduan herriak askoz txikiagoak ziren (4.200 biztanle inguru); egunean 240 etxetatik pasatzen zen. Gaur egun asko hazi da biztanleria (40.000 inguru). 36 langile eta 15 kamioi izatera iritsi zen. Erretiroa hartu eta negozioa saldu egin zuen,

baina erosi zutenak ez zirela ondo moldatzen eta handik 7 urtera berriz erosi zuen. Seme-alabek kudeatzen dute.

157. Gaur egun zaborra sailkatuta jasotzen da Idahon (AUL-029/016)

Gaur egun birziklatu egiten denez, kamioi eta ontzi gehiago behar izaten dira. Bost gai ezberdin batzen dituzte Idahon. Beraiek leku berera eramaten dituzte denak eta han multzo ezberdinetan sailkatu. Plastikoa barku handietan Txinara eramaten dela dio. Kristala zaborra estaltzeko erabiltzen da. Gehiago kostatzen ei da botila garbitzea berria egitea baino. Latak eta papera birziklatu egiten dira.

158. Hemingway-ren emaztea bizi zen etxean lanean (AUL-029/017)

Lan orduetatik kanpo lorezain lanean ere ibiltzen zen, eta Hemingway-ren emaztea bizi zen etxean lan egin zuen Ketchumen (Idaho). Etxea zaintze aldera 15 egun ere pasa zituen bertan 1962an, emaztea kanpora joan zen batean.

159. Emaztearen familia jatorriz Aulestikoa (AUL-029/018)

Chery Onaidarekin ezkondu zen. Emaztearen aita mutikotan joan zen Aulestitik AEBra bizitzera gurasoekin. Emazteak ez daki euskaraz, aitak eta aitonak bazekiten arren.

160. Euskaldunekin harremana Idahon (AUL-029/021)

Beste euskaldun batzuekin harremana izan du: afariak, dantzak... Boiseko Euskal Etxea urrun geratzen zitzaion eta ez zen asko joaten hara; Shoshone ingurura joaten ziren, dantzetara. Artean ez zegoen Euskal Etxerik Gooding-en, baina bi euskal gune zeuden eta hara joaten zen euskaldunekin hitz egitearren.

161. Gooding-eko (Idaho) Euskal Etxera sarri (AUL-029/023)

Sarri joaten da Gooding-eko Euskal Etxera: afaltzera, jokora... Bera ez zen ibili Euskal Etxea sortzen, baina garai baten izotza eramaten zuen kamioiarekin.

162. Izotza banatzeko negozioa Idahon (AUL-029/024)

Izotza banatzeko negozioa izan zuen 41 urtez. 11-12 herritara banatzen zuten, jatetxeetara eta dendetara. Etxean ura atera eta bi makinarekin izozten zuten. Gero, beste makina batekin paketeak egin eta kamioietan banatu. Hiru kamioi izaten zituen. Neguan gutxi saltzen zen.

163. Euskaraz hitz egiteko aukera gutxi Ketchumen (AUL-029/027)

Ameriketara joan ostean, 13 urte egon zen Euskal Herrira itzuli gabe. Geroztik 11-12 aldiz joan da. Aldaketa nabariena 1975etik aurrera igarri zuen, Franco hil ostean. Egunerokoan ez dauka euskaraz norekin hitz egin. Hasieran gurasoekin eta anaiarekin egiten zuen, baina haiek hil ostean, gero eta aukera gutxiago. Gaur egun ahal duen guztietan Boiseko edo Gooding-eko Euskal Etxeetara joaten da, beste euskaldun batzuekin afaltzera.

164. Afariak eta alkoholemia kontrolak AEBn (AUL-029/028)

AEBn bazkariak egitea ez da ohikoa, afariak egiten dira, baina goiz, 6ak edo 7ak inguruan. Gero kotxea hartu behar. Alkoholemia kontrolak izaten dira. Kamioilariak tasa baxuagoa izaten dute, gainera. Edanda harrapatuz gero, lizentzia kentzen dute eta sei hilabetera, berriz lortzeko, 10.000 dolar inguru ordaindu behar. Berak ez du inoiz galdu lizentzia, baina abiaduragatik isunak ordaindu bai.

165. Hainbat gauzatarako gutxieneko adina AEBn (AUL-029/029)

AEBn ohikoa da armak izatea etxeetan. 13 urterekin ehizara joateko lizentzia atera daiteke. Ez daki ziur gaur egun gidatzeko baimena zenbat urterekin atera daitekeen, baina bere semeak 14rekin atera zuen lizentzia. Alkohola edateko, berriz, 21 urte izan behar dira.

166. Euskaldunen jatetxeak Ketchumen (Idaho) (AUL-029/032)

Gloria Batisek Rio Club izeneko taberna izan zuen Ketchumen, baina saldu egin zuen 1965 inguruan. Gero senarraren anaia egoten zen tabernan. Artean euskaldun gutxi zegoen. Epi Intxaustik etxean jatetxea izan zuen. Hemingway bietara joaten zen.

167. Julio Astorkia aulestiarrek hotela Haileyn (Idaho) (AUL-029/033)

Julio Astorkia aulestiarrek eta Maria emazteak hotela izan zuten Haileyn. Garai batean euskaldun asko joaten zen. Jose EEBBra joan zenetik aurrera gero eta gutxiago.

168. Emaztea euskal dantzak irakasten (AUL-029/036)

Emaztea dantzari ona da eta euskal dantzak irakasten ibili izan da. Seme-alabek ere ikasi zuten.

169. Euskaldunen negozioak Idahon (AUL-029/037)

Eliza asko daude, baina "euskaldun elizarik" ez. Abade euskaldun bat egoten zen: Juan; gaur egun Lekeition bizi da. Inguruetan negozioak (batez ere taberna eta jatetxeak) izan zituzten euskaldunak aipatzen ditu.

170. "Trailing of the sheep" jaialdia I (AUL-029/039)

1996an "Trailing of the sheep" jaialdia egiten hasi ziren. Urrian izaten da Ketchumen eta Haileyn, bost eguneko festa. Jende asko biltzen da. Egun horietako batean artaldeekin kalean zehar pasatzen dira. Garai batean emakumeak haserretu egiten ei ziren ardiek loreak jaten zizkietelako. Bost egun horietan, dantzariak, musika... egoten da. Bertsolaririk ez dago bertan.

171. "Trailing of the sheep" jaialdia II (AUL-029/041)

John Peaveyk jarri zuen martxan "Trailing of the sheep" jaialdia. John hil zen, baina emaztea bizi da. Non bizi ziren. Amerikako beste leku batzuetatik ere joaten dira eta baita Ingalaterratik ere. 12.000 lagun inguru elkartzen dira. Ardiak eramateko ere jendea behar izaten da, 1800 ardi inguru eramaten dituzte eta. Peaveyk ardi asko zituen. Jose hara joan zenean, behargin guztiak euskaldunak ziren, gehienak bizkaitarrak; gaur egun gehienak perutarak.

172. Apartamentu eta "trailer"en negozioa Idahon (AUL-029/043)

Apartamentuen negozioa ere izan zuen (oraindik ere ba omen dauzka). Nolakoak izaten diren. Jendea bizitzeko "trailer"ak erosi, alokatu eta saldu ere egin zituen, 18 urte inguruan. Negozioaren inguruko azalpenak

173. "Mahasti" baserriko semea (AUL-030/002)

Aulestikoak ditu bi gurasoak. "Mahasti" deitzen diote, jaio zen baserriaren bezala. Hiru senidetatik erdikoa da bera. Eskolara Auslestira joan zen eta ondoren ajustadore edo doitzaille ofizioa ikasi zuen. Bederatzi urterekin baserritik kalera joan ziren bizitzera.

174. Aita 10 urtez Ameriketara lanean (AUL-030/004)

Bederatzi urte zituenean, aita Ameriketara (Idaho) joan zen artzain eta, bisitan bueltatzen bazen ere, ez zen Aulestira bizitzera bueltatu 1962. urtera arte. Urte berean Jose Antonio joan zen lanera Idahora.

175. Txerriekin lanean arrantxoan (AUL-030/006)

Jose Antonio Ameriketara joan zen modu librean, kontratu gabe, aita bertan zuelako lanean. Boisera heldu zen eta Simplot konpainiaren arrantxo batean hasi zen txerriekin lanean. Johny zuen izena ugazabak. Egiten zituen lanak aipatzen ditu.

176. Hilabeteko txerrikumeak antzutu egiten dira (AUL-030/007)

AEBn, arrantxoan, txerrikume arrak antzutu egiten zituzten, gehiago gizentzeko eta mantsoagoak izateko. Prozesua nolakoa zen kontatzen du.

177. Aita eta anaia nagusia Ameriketara zituen (AUL-030/009)

Urtebete txerriekin lanean egon ostean, hesiak ipintzen eta arrantxoko kamioiarekin ibili zen lanean, Simplot konpainiarentzat. Anaia zaharrena ere Ameriketara joan zen lanera.

178. 1967an Estatu Batuetako hiritar bihurtu zen (AUL-030/011)

Aita Estatu Batuetan zuenez, berak ere hiritartasuna lortzeko paperak egin zituen eta horrela libratu zen Espainian soldadutza egitetik. Azterketa bat egin behar da hiritartasuna lortzeko.

179. Urtegia eraikitzen Idahon (AUL-030/013)

Hell's Canyonen ibili zen lanean, urtegia eraikitzen. Langile asko zeuden bertan eta bost urte iraun zuten lanek. Jose Antonio urtebetez ibili zen, baina, aita gaixotu egin zenez, Euskal Herrira itzuli ziren biak.

180. Zerrategian euskaldunik ez (AUL-030/015)

Euskal Herriatik bueltan Boisen jarri zen bizitzen euskaldun batzuek zuten Valentzia hotelean. Zerrategi batean lan egin zuen Emmett hirian baina azkar utzi zuen, euskaldunik ez zegoelako eta lana ez zitzaiolako gustatzen. Urtegian lanean egon zenean, bazegoen beste aulestiar bat ere.

181. Kamioilari lanak Boisen (AUL-030/017)

Zerrategiko lana utzi eta kamioiarekin alpapa garraiatzen hasi zen Jose Antonio. Garraio-enpresaren jabea aurretik ezagutu zuen euskaldun bat zen. Bertan lanean egon zen bitartean, Valentzia hotelean bizi zen. Soldadu bezala joateko deitu zioten arte egon zen bertan lanean.

182. Vietnamgo gerrarako deitu zuten (AUL-030/018)

1968ko gerrara joateko soldadu bezala deitu zuten eta Washingtonera eta Kaliforniara bidali zuten formakuntza militarra jasotzera. Handik Vietnamera bidali zuten

183. Vietnamgo gerrako oroitzapenak: segadak (AUL-030/020)

Vietnamgo gerran borrokan ibili zen. Esnatu eta etsaiak non egon ziren gordeta topatzen saiatzen ziren. Gauetan segada egiten zuten. Errifleak, metrailadoreak, eskuzko-bonbak, minak... erabiltzen zituzten.

184. Vietnamgo gerrako oroitzapenak: hildakoak (AUL-030/021)

Vietnamen zegoela hogeit hamar bat lagun hiltzen ikusi zituen. Etsai gehiago zendu ziren eta kamioietara igotzen zituzten gero zurlora botatzeko. Beraiek ez bazituzten haiek hiltzen, haiek hilko zituztela kontatzen du. Hildako lagunak jasotzen saiatzen ziren.

185. Vietnamgo gerran zauritua (AUL-030/023)

Bonba baten metrailaz zauritu zen Jose Antonio Vietnamen. Ospitalera eraman zuten eta Euskal Herrira gutun bat bidali zuten, Jose Antonioren egoeraz azaltzen. 26 egun ospitalean eman zituen eta gerran borrokan jarraitu zuen.

186. Vietnamgo gerra: Cu Chi borroka-lekua (AUL-030/024)

"Cu Chi" izeneko lekuan borrokatu zuen Jose Antoniok Vietnamen.

187. Vietnamgo gerra: munizioa eta janaria gainean (AUL-030/025)

Vietnamgo gerran soldadu zegoela edozein lekutan egiten zuten lo, manta batekin. Bero asko egiten zuen baina maiz euria egiten zuen ere. Janaria beraiekin eramaten zuten. Sei egunetarako janaria eta munizioa eraman behar izaten zuten. Konpainiako kapitainak esaten zien nora joan behar zuten.

188. Vietnamgo gerran borroka luzeak (AUL-030/026)

Bi borroka gogor gogoratzen ditu Vietnamen. Bat gabeko hamarretan hasi eta hurrengo eguneko eguerdirarte iraun zuen. Etsaietako bateri aurpegia nola lehertu zitzaion kontatzen du.

189. Vietnamgo gerran borrokan: beldurra (AUL-030/028)

Zaurituak helikopteroan edo anbulantzian sartu eta borrokan jarraitzen zuten. Askotan pentsatu zuen hil egingo zela. Hasieran beldur handia izan zuen. Hamahiru hilabetez egon zen Vietnamgo gerran.

190. Vietnamgo gerratik aitaren hiletara (AUL-030/030)

Vietnamgo gerratik bueltatu zenean amesgaiztoak izaten zituen. Gerra bukatu baino pixka bat lehenago aita hil zen eta kapitainak Euskal Herrira bueltatzeko hilabeteko baimena eman zion. Gero Vietnamera bueltatu behar izan zen eta handik eta pare bat hilabetetara bukatu zen gerra.

191. Vietnamgo gerra: soldaduen fama txarra (AUL-030/033)

Vietnamgo gerratik bueltatu zenean, bertan egonda soldaduek fama txarra zuten. Gerran zegoela zibilak hiltzen zituzten soldaduak ikusi izan ditu.

192. Vietnamgo gerra: soldatutik sarjentu izatera (AUL-030/034)

Vietnamgo gerran sarjentu izatera heldu zen Jose Antonio. Azterketa bat pasa behar izan zuen. Borrokan, sarjentua lehenengo ilaran egon behar izaten zen. Behin lagun bat aurreratu zitzaion eta hil egin zen.

193. Vietnamgo gerra: esperientzia gogorra (AUL-030/035)

Hildakoen gorpuak helikopteroan batu eta gero Estatu Batuetara eramaten zituzten. Gerran zegoenean ez zuen negarrik egiten, baina orain hura gogoratzen duenean, bai. Ahal izanez gero, tiroetan huts egiten saiatzen zen.

194. Vietnamgo gerra: mila bala soldaduko (AUL-030/036)

Soldadu bakoitzak gainean 1000 bala eta granada batzuk eramaten zituen.

195. Gerratik bueltan, kamioilaria (AUL-030/040)

Vietnamgo gerrara joan aurretik Meridianen (Idaho) arrantxo bat erosi zuen beste bi lagunekin. Bere zatia saldu egin behar izan zuen eta gerratik bueltan lagun baten garraio-enpresan lanean hasi zen, alfalfa eta garia garraiatzen. 1974ean kamioi bat erosi zuen.

196. Jo & Martin enpresa sortu zuen (AUL-030/041)

Martin Elexpurrekin kamioi bat erosi zuen eta garraio lanetan hasi ziren. Gero beste sei kamioi erosi zituzten eta langileak kontratatu zituzten. Enpresak Jo & Martin izena du. 2020. urtean erretiratu zen.

197. Emazte amerikarra (AUL-030/043)

1974. urtean kamioia erosi eta Goodinegera joan zen bizitzera. Han ezagutu zuen emaztea izango zena eta 1975ean ezkondu ziren. Hiru alaba dituzte.

198. Goodinegko euskal klubaren sorrera (AUL-030/044)

Goodgineko euskal kluba sortu zuen Alberto Flores, Andres Lejardi eta Ramonekin batera. Piknikak, bazkariak, diru-bilketak... antolatzen zituzten. Euskal asko zeuden Goodginen. Goodgineko dantza-taldeko irakaslea Andres Lejardi izan zen urte askotan.

199. Boisen asko jolastu du pelotan (AUL-030/045)

Txingetan ibiltzen ziren Goodginen hasiera batean. Pilotan Boisen jolastu izan du, baina Goodgingen ez. Lehenengo Jaialdi antolatu zenean, bigarren gelditu zen.

200. Ingelesa nola ikasi zuen (AUL-030/048)

Kalean ikasi zuen ingelesez, ez zen eskolara joan. Kamioian hasi zenean lanean ikasi zuen ingelesez eta gero emaztea ezagututakoan. Asko irakurri izan du eta horrek ere balio izan zion ingelesa ikasteko. Batzuk ez dute inoiz ondo ikasi ingelesez hitz egiten, nahiz eta amerikarrekin ezkondu.

201. Musean jokatzeko euskal etxean (AUL-030/050)

Musean jokatzeko du Jose Antoniok. Txapelketetan parte hartu du Goodingeko eta Boiseko euskal etxeen izenean. Bere mus-laguna Santanderrekoa zen. Museko keinuak zeintzuk diren azaltzen ditu.

202. Vietnamgo gerrako dominak (AUL-030/052)

Vietnamgo gerran egoteagatik "Purple Heart" eta beste horrelako 3 edo 4 domina jaso ditu.

203. Aulestiko Lekoiz baserrian jaioa (AUL-031/003)

Aulestiarra da izatez. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bera jaio zen Lekoiz baserriaren kokalekua. 12 neba-arrebatatik laugarrena izan zen.

204. Gerra sasoiaren soldaduak etxean (AUL-031/004)

Gerra sasoiaren soldaduak egon ziren euren etxean eta beste etxe batera alde egin zuten. Ardiak zituzten mendian. Gernika bonbardatu zuten egunean, aita ardiak etxera zeramatzean, ardi guztiak kendu omen zizkieten, soldaduek jateko behar zituztela eta.

205. Eskolara joan beharrean, baserriko lanetan (AUL-031/005)

Eskolara ez zela joan dio. Ordubeteko bidea zuen. Horrez gain, maisuak gaztelan egiten zuen eta ezin ulertu. Gainera, aita nahiago izaten zuen artzain lanetan geratzen baziren. Santa Eufemi inguruan ibiltzen ziren ardiak, baina etxetik ikusten zituzten, zuhaitz gutxi zegoen eta. Bildotsak saltzen zituzten; amak egindako gaztak ere bai.

206. Gaztak egiten zituzten etxean (AUL-031/007)

Berak ere ikasi zuen gazta egiten, baina amak hobe egiten zuen. Gazta nola egiten zuten. Gatzura txerrientzat. Gaztak metalezko ontzietan sikatzeko utzi gero.

207. Harrobiko lana; anaia leherketaren ondorioz hil (AUL-031/011)

Etxetik gertu zuen harrobian lan egin zuen. Marmola ateratzen zuten. Zuloak egiteko erremintak zorrozteak zen bere lana. Harrian zuloak egin eta zatiak ateratzen zituzten. Gero kableekin lotu eta kamioira kargatu. Hondarribiko lantegira eramaten ziren gero. Dinamita ere erabiltzen zuten. Anaia eta beste lankide batzuk leherketa baten eraginez hil ziren.

208. Bizikleta-lasterketetan ibilia (AUL-031/015)

18 urte ingururekin hasi zen bizikletan. Ondo ibiltzen zen, batez ere aldapa gora. Berak erosi zuen bizikleta. Lasterketetan ibiltzen zen: Eibarko itzulia, Arratera igoera... Sari batzuk ere irabazi zituen.

209. Ameriketara bidaia (AUL-031/018)

1964an Ameriketara joan zen. Bidaiaaren nondik norakoak. "Ispaster" taxilaria zuen zain aireportuan.

210. Garate artzainarekin kanpero lanetan (AUL-031/020)

Ameriketara joan zenean, Garate taxilaria zuen zain aireportuan, Boisera eramateko. Letamendi hotelean egon zen hiru egunean. Gero mendira, hiru zaldi eta hiru mandorekin. Bitor Garate artzain eta bera kanpero. Zer lan egiten zituen.

211. Kanpero lana (AUL-031/022)

Kanpero lana. Ardiak aurrera joan ahala, beraiek ere mugitu egin behar (denda, abereak...). Ardientzat arriskutsuak izaten ziren koioteak eta "otsoak" (hartzak). Inoiz hiltzen zuten "otso"ren bat. Haren belarria eramanez gero, ehun dolar ordaintzen zituzten. 225 dolarreko soldata izaten zuten.

212. Homedaletik Grand View-ra, arrantxora (AUL-031/024)

Artxabal izan zuen ugazaba Homedalen. Han bi urte egin ostean, Grand View-ra joan zen, beste konpainia batekin. Arrantxoan ugazabak agindutako lanak egiten zituen. Langileetako asko euskaldunak ziren.

213. Belarra garraiatzen Gooding-en (AUL-031/028)

1974an Gooding-era joan zen lanera eta hango taberna batean ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Jose Antonio Luzarrekin batera hasi zen lanean: belarra erosi, garraiatu eta saldu egiten zuten, abereentzat.

214. Gooding-eko Euskal Etxea (AUL-031/033)

Gooding-en bizi izan zen arrantxoan emaztearekin. Bertako Euskal Etxea sortzen ibili zen beste batzuekin batera.

215. Bi anaia ere Ameriketara (AUL-031/037)

Bera joan eta gero beste bi anaia ere Ameriketara joan ziren eta bertan bizi dira. Aurretik, osaba bat zuten. Berarekin artzain ibili zen Garateren bitartez joan zen bera; bizikletan elkarrekin ibiltzen zirelako ezagutzen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com